1919·2019

ARGIA

HONDARRIBIKO ALARDEA

Emakumeen eskubideak lehen lerrora ekartzeko unea

#2.657 | 2019/09/15 | 3,90 €

Herrialde aberatsek azpi-kontratatutako suntsiketa

10 I AMAZONIA SUTAN

"NATOn AEBek agindu eta Europak obeditu egiten du"

31 I PATRICK MBEKO

1936an fusilatua: Martzelo etxean da

34 I ARGAZKI ERREPORTAJEA

Hello, Robot.

Diseinua gizakiaren eta makinaren artean.

Erakusketa
2019-06-22 / 2019-09-29



Christoph Niemann, "Robot Morph", 2016, © Christoph Niemann.

STM
San Telmo Museoa

ANTOLATZAILEAK:

STM San Telmo Museoa · DONOSTIA SAN SEBASTIÁN · donostia kultura

BABESLE BEREZIA:

kutxa FUNDAZIOA

ERAKUNDE BABESLEAK:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGÜÍSTICA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

ERAIN KULTURA

PATRONO PRIBATUAK:

eitb · EL DIARIO VASCO

AN EXHIBITION BY THE VITRA DESIGN MUSEUM, MAK VIENNA AND DESIGN MUSEUM GENT

Vitra Design Museum · MAK · Design Museum Ghent

GLOBAL SPONSOR: ABB

SPONSOR: FESTO

FUNDED BY:

KULTURSTIFTUNG DES BUNDES
THE GERMAN FEDERAL CULTURAL FOUNDATION

ARGIA

2.657 zenbakia I Irailak 15, 2019

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
07 I HUMANITATEAREN UNE GORENAK
07 I EZ HANKA EZ BURU
08 I EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

17 I KARMELO LANDA
18 I BEA SALABERRI
19 I AINHOA AZURMENDI
19 I CASTILLO SUAREZ
20 I ARKAITZ ZARRAGA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

40 I BIZI BARATZEA
42 I ARGIA KOMUNITATEA
47 I DENBORAREN MAKINA
48 I KULTUR-KRITIKAK
50 I ZUZENEKO EMANALDIA
51 I DENBORA-PASAK
52 I ARGI-KONTRA: SC NATZAB
54 I BERANDUEGI

PRENSA LIBRE

10 I **SUTU AMAZONIA**
Mundua azken hamarkadotan ohituta egon da Amazonian urtero pizten dituzten sute handiei ezikusia egitera. Aurtengo sarraskiaren dimentsioak ordea, zalaparta eragin du. Hala ere, gaitza dirudi herrialde aberatsek azpi-kontratatutako suntsiketa gelditzea. Izan ere, Europak, Txinak eta Iparramerikak zur, mineral eta okela gehiago behar dute. Pello Zubiriaren erreportajea.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 I IRANTZU MENDIA
"Emakumeen aurkako indarkeriak intentzio politiko argia du"
Miel A. Elustondo

22 I GIZARTEA I HONDARRIBIKO ALARDEA
Problema ez zen bizikidetza, problema berdintasuna da oraindik
Gorka Bereziartua Mitxelena

28 I POLITIKA I PABLO ORTIZ DE LATIERRO
"Zarata atera behar dugu, politikoek jakin dezaten integrazioa nahi dugula"
Z. Oleaga

31 I NAZIOARTEA I PATRICK MBEKO
"NATOn AEBek agindu eta Europak obeditu egiten du"
Iñaut Gonzalez de Matauko

34 I HISTORIA
1936an fusilatua: Martzelo etxean da
Mauro Saravia

38 I EUSKARA I DONOSTIAKO ASTE NAGUSIA
Euskararen erabilerak gora egin du, baita gaztelaniarenak ere
Onintza Irureta Azkune

44 I ANTONIO CASADO DA ROCHA
"Kulturak laguntzen digu unibertsitatean kritikoak izaten, baita autokritikoak izaten ere"
Gorka Bereziartua Mitxelena

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNDUA)

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iñaut Gonzalez de Matauko, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Z. Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Ametzagaiña taldeko kidea da Argia honako enpresekin batera:

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

CC BY SA

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.

AMSTEL
VIRGEN BLANCA

Ur puxika askatzaileak

DOSPORDOS XABIER LETONA

Datorren irailaren 16an hasiko da Madrilen 47 euskal herritarren aurkako 11/13 makroauzia. Berriz ere "dena ETA da", Auzitegi Nazionala, atzoko TOP auzitegi frankista, garai hartako egungo aztarnarik biziena, euskal herritar, katalan edo dena delako disidentzia zigortzeko tresna ondo olioztatua. Bost gasteiztar ere badira auzian eta, aliatu mediatikoen laguntzaz, ehunka herritarrek irailaren 7an ur olatu erraldoia eragin zuten Gasteizen hauek munstroaren atzaparretatik askatzeko. Amaitzeko, 600 ur puxika jaurtiz *Paperezko Auzitegia* suntsitu zuten salbuespen politiken amaiera aldarrikatuz.

XISTOR HARANBURUREN BALDINTZAPEKO ASKATASUNAK EZ ZUEN ARAZORIK SORTUKO EUSKALDUNA EZ BALITZ (...) ZENTZUGABEA DA ENTZUTEA EUSKAL PRESOA LIBRE EGOTEAK EZ DUELA BERMATZEN BERRIZ ARMAK HARTUKO EZ DITUENIK.

Jean-René Etchegaray,
Euskal Elkargoko lehendakaria

ZER ESANGO LUKE [KARL] POLANYIK XXI. MENDEAN? HONAKOA, AGIAN: TRUMPEN, BOLSONAROREN EDO CASADO-RIVERA-ABASCALEN NEOFAXISMO POPULISTA ULERTZEKO, BEGIRADA SILICON VALLEYN JARRI BEHAR DUGULA, JEFF BEZOS, MARK ZUCKERBERG ETA KAPITALISMO DIGITALAREN GAINONTZEKO KAPITAINEN GAINEAN.

Ivan Miró (*El Salto*)

EA DESAGERTZEKO ARRISKUAN EGON LITEKE BALDIN ETA EGOERA HAU [BARNE KRISIA] NORABIDE KOLPE BAT EMANEZ BIDERATZEN EZ BADA.

Carlos Garaikoetxea
(Diario de Noticias)

HAREN BASERRIRA IKASTERA JOAN ETA BEREHALA ESAN ZIDAN BERE ALBAITARIA GIZONA ZELA, HANDIA, ETA EHUN KILOKOA; EA ZER EGIN BEHAR NUEN NIK, EMAKUMEA ETA HAIN TXIKIA IZANIK.

Izaro Zubiria, albaitaria *(Elhuyar)*

LANDER ARBELAITZ

Erraustegiaren kutsadura neurtuko dute

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Zubieta Lantzen kultur elkarteak prentsaurreko bidez jakinarazi du datorren astean Herbehereetako eta Euskal Herriko zientzialariek laginak hartuko dituztela Gipuzkoako erraustegiaren inguruetan, hau piztu aurretik kutsaduraren egoera zein den neurtuta edukitzeko. "Gure datu propioak gure esku izatea, amesgaizto honen aurkako autodefentsa neurri gisa planteatzen dugu", adierazi dute proiektuaren aurkakotasuna berriz ere erakutsiz. Hamar kilometroko erradioan kutsadurak milaka herritarrei eragingo diela jakinarazi zuten, herrien artean Zubieta, Lasarte-Oria, Andoain, Usurbil, Donostia, Urnieta, Hernani, eta Astigarraga aipatuz.

Herbehereetako ToxicoWatch fundazioa da bat, eta bestea Eusko Jaurlaritzak akreditatutako Euskal Herriko enpresa bat, izena aipatu ez dutena. "Mostrak hartuta, etorkizunean, aldundiak erraustegia piztuko balu, jarraipena egin eta emaitzak konparatu ahal izango genituzke". Lehen pauso honen garrantzia azpimarratu dute, eta dagoeneko lotuta dauzkatela azterketa egiteko oilategiak, lurra eta landaredia.

Datozen asteotan ikertzaileek kutsadura laginak hartuko dituzte Zubieta eta inguruetan. Zubieta Lantzen elkarteko kideek esan dutenez, erraustegiaren dispertsio estudio bat egin ostean aukeratu dituzte gune hauek. Hedabidetako profesionalak gonbidatu dituzte ikustera nola hartzen dituzten laginak, baita ikertzaile hauekin solas egitera ere.

ToxicoWatch gobernuz kanpoko zientzialarien elkargo holandar bat da, POP eta dioxinen neurketa eta ebaluazioan mundu mailako adituenetakoa. Herbehereetako erraustegien jarraipen-neurketetan urtetako esperientzia dute, eta mundu mailan hainbat proiektu martxan dituzte isuri toxikoen jarraipen zientifikoak egiteko. ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Ez zait jendea gustatzen

ARITZ GALARRAGA

Horrela, oro har. Kolektibo gisa. Salbuespenekin, noski. Badira jasangarri diren gizabanakoak, are maite ditudan gutxi batzuk ere. Izango da agian nahasmenduren bat. Kontua da nahiago izaten dudala etxean geratu, adibidez sofan, kanpoalde gordinera atera baino. Batzuetan, baiki, ateratzen naiz, atera behar izaten dut, besterik ez bada mortu kolorea ken dakidan. Eta horrelakoetan banku batera joan ohi naiz, liburutegi publiko eta aldi berean pribatu ere baden banku bat.

Ondo. Nire bizitza zergatik kontatzen dizuedan: bada, banku horretara joan nintzen azken aldian oso fuerte flipatu nuelako. Nahi gabe, akaso liburuak ez ninduelako katigatu, engantxatu egin nintzen jendearen solasaldietara. Adibidez, bizikletaz pasa zen bikote bati zera harrapatu nion: "Zakil batek zakil usaina du, alu batek alu usaina duen bezala" –tautologia zer den azaltzeko balio lezake?–. Beste bikote bat, zoritxarrez, luzeago geratu zitzaidan ondoan. Azkenaldiko gorabehera mediku guztiak errepasatu zituen batek. Diagnosia bakarrik aipatuko dizuet, xehetasunak aurrezteko: uzki urraketa. Geroxeago, tipo batek ez dakit noren semeari infartu bat eman ziola jakinarazi zigun –bai, ordurako niri ere bai–. Eta semeari eman ziola izan zen hor kezkagarriena, halako gauzak gurasoari ematea dagokiolako, lege naturalak hala aginduta. Zorionez hizketakideak argitu zuen ez zela infartu bat izan. Lasaitu nintzen.

Hala ere, eguneko solas guztietan durduzagarriena: aurrez aurre bi gizon, egunonak eman eta batek galdetzen dio besteari: "Ez duzu beldurrik?". Horrela, boteprontoan, batere baselinarik gabe. Bestearen aurpegia ez nuen ikusi nahi izan, baina irudikatu nuen, galderari zer erantzun zion entzunda: "Zeri?". Nik ere beldur ezezagun bat sentitu nuen, handia, inoiz ez bezalakoa. Eta ez, ez zait jendea gustatzen. Horrela, oro har. Domaia da, ze zutabe onak idatziko nituzkeen bestela. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

BDS EKIMENA: "PUMA-REN AURKAKO BOIKOTA DEITZEN DUGU"

ISRAELGO FUTBOL FEDERAZIOAK APARTHEIDA LAGUNTZEN DU
Palestinako kirolariek eta kirol elkarteek nazioarteko Puma kirol enpresaren aurkako boikota deitu dute Israelen aurkako boikota bultzatzen duen BDS (Boikot, Desinbertsio, Zigor) ekimena medio. Puma Israelgo Futbol Federazioaren (IFA) babesle nagusia da, eta Federazioaren barnean lur okupatuetan eraikitako asentamenduetako futbol taldeak daude. Asentamenduak gerra krimentzat hartzen ditu nazioarteko zuzenbideak. Pumaren aurretik, Adidas kirol enpresa izan zen IFAren babesle nagusia, baina azkenean babesletza utzi behar izan zuen.
BDSMOVEMENT.NET, 2019/09/05

EKONOMIAREN TALAIAN

Kapitalismoa, baturik eta mozorrotuta

JUAN MARI ARREGI

Talaia ekonomiko honetatik askotan salatu dugu kapitalismoa egiten ari den irudi aldaketa, "humanoago eta sozialago" agertuz etekinak pilatzen segitzeko, bere azken helburua hori baita. Uda honetan, Business Roundtable enpresa-elkarte estatubatuarrak, hamabost milioi langile enplegatzen dituzten 180 konpainiatako liderrek sinaturiko adierazpena aurkeztu du. Langileak "gizalegez konpentsatu" behar direla diote, hornitzaileekin harremana "etikoa" izan behar dela, eta ingurumena babestu behar dela "gure enpresetan praktika jasangarriak sustatuz".

Halako baieztapenak ezkerretik egin ahal izango lirateke. Baina horien atzean egiaz dagoena da estrategia oso bat langileen nahiz herri sektoreen "matxinada" eta mobilizazioa saihesteko, lan prekarietateak, soldata baxuek eta aldaketa klimatikoak bultzatuta, sistema ekonomiko basati eta predatzaile honek sorturikoak baitira.

Inbertitzaile handiek, diruari errentagarritasuna ateratzeko, jokabide zehatz bat exijitzen dute. Ezin baitezakegu ahaztu funts subiranoek eta pentsio funtsek euren inbertsioak baldintzatzen dituztela konpainiek gutxieneko sozial eta ingurumenezko batzuk bete ditzaten.

Beraz, kapitalismoa gai da mugitzeko, bere burua erreformatzeko eta egokitzeko. Zinikoki erakusten du aurpegi atseginago bat, irabazi gehiago edukitzearen truke. Irakasgai handia da hori ezkerreko sistema alternatibo baten alde egiten dugunontzat: gu ez gara ados jartzen gizarte justu, libre, igualitario, solidario, ekologiko eta feminista bat lortzeko. Bananduta gaudenez, mozorrotuta dagoen kapitalismo batu horri bidea irekita uzten diogu. ●

ANALISIA

DANI BLANCO

G7 eta borroka moldeak; aukera porrot bihurtua?

Z. OLEAGA

Aje luzea utzi du euskal herrigintzan G7aren kontra-gailurrak. Borroka bidaideen arteko bai, –bidaide diot – tentsio, eztabaida, haserre eta ezinen biharamuna da. Desobedientziaren aldeko diskurtsoa ia lurzoru komun bilakatu da. Praktikara jotzean, ordea, ustezko batasunen atzeko desadostasunak agertzen dira.

Bada desobedientzia eta edozein jendarte tentsio aurreragorako utzi nahi duenik, Hegemonia irabazi ondorenerako. Desobedientzia, ordea, gaurdanik hegemoniak eraikitzeko lanabesa ere bada. Gatazkak eta praktika desobedienteak piztu nahiko genituzkeenen artean garatu da esperientzia interesgarririk, baina desobedientzia ADNan daraman borroka herrikoi jarraitu eta jendetsu batetik urrun gaude. Seduzituko duten proposamenak behar ditugu, baina, nagusiki, arriskatzeko erabakimena falta dugu: askatasuna, gorputza eta batez ere poltsikoa arriskatzekoa; hanka sartzeko arriskua hartzekoa ere bai.

G7 EZ plataforman ekintza desobediente bat adostu zen igande eguerdirako. Egunez egun aldatu ostean, azkenik igande goizean bertan suspenditu zen herri harresiaren deialdia. Plataformatik kanpoko zein barneko hainbat pertsonak etsipenez edo haserrez hartu zuen erabakia.

Bi argudio eman ziren. Bata, ezin zela manifestarien "integritate fisikoa" bermatu. Harresien oinarrietako bat, ordea, gorputzak arriskuan jartzeko prestutasuna da. Bestea, plataformako kide Joseba Alvarez aurreko gauean atxilotu izana. Pertsona bakarraren esku zegoen ekintza? Atxilo zegoela bere izena erabili, jakinik berak ez zukeela suspendituko? Ez du ematen ekintza hori egiteko nahiko erabakimen eta kontsentsu zegoenik.

Munduko kriminalik handienetakoak Euskal Herrira etorri dira haien agenda egun argitan eztabaidatzeko, 20.000 poliziak babestuta eta eskubideak *de facto* ezabatuz. Normaltasun demokratikoan igaro da gailurra, eta kontra-gailurraren agendatik protestarako eskubiderik gabe utzi gaituzten horiekin adostutako ekimenak soilik egin dira. Egindakoei balorerik kentzeko asmorik gabe diot.

Borroka moldeetan zenbait korapilo askatu eta ekarpenak egiteko aukera ederra galdu dugu. Aprobetxa dezagun porrota, gailurraren ondoren azaleratu diren eztabaidak modu kolektibo interesgarrian egiteko. Desobedientziaz eta borroka moldeez, oro har. Eztabaida konplikatua zaigu hori, deserosoa, zauriak sortuko lituzkeena ziurrenik. Baina heltzen ez diogun bitartean borroka sozialerako egoera konplikatzen ari zaigu, dagoeneko deserosotasun handiak daude gure artean, eta zauriak sortzen ari dira. Bai, bidaideen artean. ●

DANI BLANCO

BELAUNALDI OSO BATEN SOINU BANDAN EZINBESTEKO FIGURA IZAN DEN MUSIKARIA

IÑIGO MUGURUZA HIL DA. Irungo musikaria irailaren 5ean hil zen. Esklerosi anizkoitza zeukan eta gaixotasun hori dela-eta eszenatokiak utzi zituen 2015ean. Musikarien familia bateko kidea zen eta bere anaia Ferminekin batera 1984an Kortatu taldea sortu zuen, Euskal Herriko rockaren historian berebiziko garrantzia izan duen banda. Ondoren etorri ziren Delium Tremens, Negu Gorriak, Joxe Ripiau, Sagarroi, Lurra eta Hiru Leike taldeak.



HARTZAREN ERASOA

50

Ardi hil zituen hartzak joan den astean Okzitaniako Pirinioan, Cauteretsen, Paxkal Harizpuru Nafarroa Beherako artzaiak jakinarazi duenez. Salaketa gisa, ELBk Baionako suprefeturaren parean utzi zituen hildako hainbat ardi.

1.000 arditik 300 desagertu ziren erasoan eta beste asko zauritu.

Woody Allenen filmari 60.000 euro eman dio Donostiako Udalak

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Uztailean Udaleko iturriek ulertarazi zuten Woody Allen AEBetako zuzendariak Donostian errodatu behar zuen filmean emango zuten laguntza bakarra udal-baimenak ematea izango zela, eszenak grabatu ahal izateko gainontzeko gestioetan erraztasunak emateaz gain. Astearte honetan jakin denez, ordea, Udalaren laguntza ekonomikoa ere izango du pelikulak: 60.000 euro onartu ditu Eneko Goia buru duen erakundeak, filmak erabilitako instalazioen alokairuak ordaintzeko.

PUBLIZITATE ERAGINAREN TRUKE

Miramar Jauregia eta Kursaal eraikina erabili zituen Allenek grabazioan, biak ere jabetza publikokoak. Lehenbizikoa erabiltzeagatik 48.753 euro ordaindu beharko zituen filmaren ekoizlea den Mediapro talde espainiarrak, baina Udalak bere gain hartu du; Kursaal jauregiaren kasuan, alokairuaren kostua 4.194 eurokoa da eta hori ere donostiarrek ordaindutako zergei esker finantzatuko da, filmaren publizitate inpaktuaren truke. Gainera, Donostiako hondartzak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak ere Udalak ordainduko dizkio Allenen pelikulari.

GERARDO BUJANDA hil zen irailaren 4an, 100 urterekin. 1936ko gudari ohia Saseta batailoian eta politikari jeltzalea, frankismo garaian klandestinitatean lan handia egin zuen EAJ barruan eta gero diputatua ere izan zen Madrilen.

ROGER ETCHEGARAY Ezpeletako kardinala hil zen irailaren 4an Kanbon, 96 urterekin. Elizgizon garrantzitsua izan zen eta Joan Paulo II.aren agintaldian munduko gatazka askotan egin zuen Vaticanoren bitartekari lana.

MARIXOL IPARRAGIRRE euskal preso politikoa entregatu zion Frantziak Espainiari irailaren 4an, 15 urteko zigorra bete ondoren. Hamabi auzi leporatuta, Auzitegi Nazionalaren aginduz, Soto del Realen espetxeratu zuten.

SUTU AMAZONIA
EUROPAK, TXINAK ETA IPARRAMERIKAK ZUR, MINERAL ETA OKELA GEHIAGO BEHAR DUTE

Mundua azken hamarkadotan ohituta zegoen uztailetik urrira –tropikoko lehor sasoian– Amazonian urtero pizten dituzten sute handiei ezikusia egitera. Baina aurtengoan abuztu amaierarako iazko kopuruak %77an ugarituak ziren Brasilen eta Boliviak ikusi du bere 730.000 hektarea kiskaltzen. Planetak klimaren egonkortasunak eta bertako indigenek biziraupena dauzkate jokoan... baina gaitz dirudi herrialde aberatsek azpi-kontratatutako suntsiketa gelditzea.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Michael Williams geografia irakasle iparramerikarrak 1992an plazaratutako *Lurra planeta deforestatzen* liburuan (*Deforesting the Earth. From Prehistory to Global Crisis*) luze eta zabal azaldu zuen beste oihan tropikal gehienek bezala Amazoniakoak ordurako nozitzen zuen hondamendia. 453. orrialdean ageri da NASAk zabaldutako argazki bat, oin honekin: "Brasilgo Rondonia eta Mato Grosso estatuak suteen sasoian, 1984ko abuztuan. Basoak eraistean sortutako suen ke-lainoa baino gorago iristen da kearen motots termikoa, argazkia egin duen *Space Shuttle* espazio-ontziaren kamera alderantz".

35 urte geroago, zirrara handiagoa lortu dute NASAren beste satelite batek Amazoniako suteei egindako argazkiek. Mundua ohituta dago lehorte sasoian Amazonia ketan ikusten, jakina baita basoak *garbitzeko* erabiltzen dituztela: zura ateratzeko, aziendentzako bazkalekuak sortzeko eta meategi berriak zulatzeko. Aurtengoan, ordea, sateliteen jarraipenak ohartarazten zuen erreketak ohi baino ugari eta handiagoak izaten ari direla.

Gertatzera zihoanaren berri bazuen aurretik Brasilgo Gobernuak, *Globo Rural* hedabideak kontatu eta Europan Ivan Roy kazetariak zabaldu duenez. Amazonia kiskaltzen ari diren suteetako asko lurjabe brasildar handiek piztu dituzte, oihana eraisteko beren eskubidea aldarrikatu, Bolsonarori atxikimendua erakutsi eta, bide batez, aurreko gobernuek legez kontrako baso-eraisketengatik ezarritako isunak ezabatzea lortzeko. "Whatsapp bidez koordinatu dira erreketa antolatzeko. Zehazki Para estatuan 70 *fazendeiro* (lurjabe handi) eta hainbat *grileiro* (lurrak legez kontra eskuratzeko jabego tituluak faltsifikatzen berezituak) abuztuaren 10erako antolatu zuten *Dia do Fogo*, suaren egunа". Sute kriminalok BR 163 errepide inguruetan eragin zituzten. BR163ak zeharkatzen du Brasilen menpeko Amazoniaren eremu handi bat, lotuz soro eta abelazkuntza erraldoiak Amazonas bazterreko portuekin.

Oihartzun bila bazebiltzan, lortu dute. Egun gutxiren buruan, mundu osoak ikusiak zituen oihan amazoniarra garretan erakusten zuten irudiak. Espektakuluaren arauak zorrotz betez, politikariek erantzun behar izan zioten jendeen artean hondamendiak eragindako zirrarari eta Miarritzeko G7 gailurreraino iritsi zen gaia, Emmanuel Macron lehendakari frantsesaren eta Jair Bolsonaro Brasilgoaren arteko talka ezagunarekin.

Inoizko urterik beroenetako bat ezagutzen ari den Europan Brasilek klimaren egonkortasunerako daukan garrantziagatik kezkatzen ditu herritarrak. *Le Monde Diplomatique*k bere atlasean azaltzen duenez, munduko oihan tropikalen herena dauka, ur gez guztiaren %20 eta Amazoniak bereganatzen du planeta osoak irents dezakeen C02 guztiaren hamarrena. Orriotan bertan uztailean kontatzen zenez, (*Viktor Gorxkov, biziarentzat CO2-a baino larriagoa oihanen suntsitzea dela erakutsi duena*) Lurraren klimaren egonkortasunak asko dauka jokoan Amazonian.

Hala ere, klimagatik kezkatzen diren herrialde aberatsetako herritarrak kontraesan larrian bizi dira. Jakina da herrialde aberatsek beren aurrerapena lortu dutela, besteren artean, etxean agortutako oihanak eta horietako aberastasunak ordezkatzeko eremu berriak urruti aurkitu eta ustiatuz. Gaur oraindik Europako basoek –mende luzeetako deforestazioak laga dituenak– bizirik diraute europarrek oihanen *suntsiketa deslokalizatu* dutelako.

Orain, aldiz, europarrek munduko oihan tropikalek zutik irautea nahi dute, klimaren zoratzeak haiek ere harrapatzen dituelako gero eta gehiago. Baina nola saihestu hondamendia orain bezala kontsumituz urruneko triskantzaz ekoiztutako elikagaiak, etxegintzako zurak, teknologia berriak... eta aurre egin barik Europako –Euskal Herria barne– eremu desertizatuak berriro berdetzeko lanari?

TROPIKOKO ERRAUTSAK GURE ETXEAN

Brasilek 215 milioi abelburu dauzka, horietatik %40 oihanari kendutako larreetan bazkatuz. Baina bertako ganaduez gain urrunekoak ere elikatzen dituzte duela gutxi arte baso primario izan eta orain soro bihurtuek. Soja plantazioak gero eta aurrerago doaz Amazonas iba-

AMAZONIA 1989
1930EKO HAMARKADATIK AURRERAPEN ETA NAZIONALISMO AIPAMENEZ JUSTIFIKATZEN DU ESKUIN BRASILDARRAK AMAZONIAKO OIHANAREN SUNTSIKETA.

rrean gora eta Brasilek laster kendu behar die labore horren ekoizpenean txapeldun titulua AEBei. Soja transgenikoa, noski, %90ean. Mato Grosso estatuak bakarrik iaz 30 milioi tona bildu omen zuen, gainerako soja brasildarrarekin batera erabiliko direnak bai bertako behiak gizentzeko eta bai esportaziorako, nagusiki Txina eta Europar Batasunera, hemengo oilo, behi eta zerriak gizentzeko.

Amazoniako txikizioaren eta europarron ahoaren arteko bidea iradokitzen du Iñigo Segurola eta Jakoba Errekondoren azken hitzaldiaren tituluak: *Baratzetik platerera sortzen dugun paisaia*. Paisaia negargarri berriak eragiten ditu biktima hurbilak ere, sobera aipatzen ez direnak: betidanik eremuotan bizi ondoren kanporatzen dituzten indigenak, inbasoreei aurre egiten ausartzen diren militante eta gidariak eta, oro har, etxalde erraldoi eta meategietan baldintza gogorretan lan egitera behartutakoak. Bolsonaroren aroan, BR163 errepideak aurrera egin ahala ugarituz doazenak.

Boliviak ere nozitu ditu suteak, Chiquitaniako oihan bereziko 700.000 hektarea kiskali dituztenak abuztuaren 18tik 23ra bitartean, bi urtetan erretzen den guztia adina. Lekuko aditu batzuek diote bi mende beharko direla munduko oihan tropikal idor handiena zen hori lehengoratzeko, hain dira bereziak han bizi diren espezie eta ekosistema.

Chiquitaniako hondamendia, bertako prentsak dioenez, urtero eremuak horrela garbitzen dituzten nekazariek eragin dituzte, piztu ondoren haien garrek ihes eginda aurtengo tenperatura eta idorte bereziengatik. Baina agian ez da kasualitatea ere hori gertatu izana Evo Moralesek haragi esportazioak handitzeko neurri berriak iragarri eta gutxira. Uztailean plazaratutako *decreto supremo* baten bidez, Moralesen gobernuak El Beni departamenduko lurjabe handiei baimendu zien 4,5 milioi hektarea berri erabiltzea –zuhaitz eta basoak eraitsita– aziendak bazkatu eta haientzako laboreak ekoizteko.

Hainbat gizarte erakundek egin dute protesta lege berriak konstituzioa urratzen duelakoan. Chiquitaniako desastreak naturari eragindako kalteez gain hankaz gora ipini du Santa Cruz inguru osoa. Moralesek lehenbizi ukatu eta azkenean onartu behar izan zuen nazioarteko laguntza. Alex Villca buruzagi indigenak esan die kazetariei: "Erantzukizunak eskatu behar zaizkio Evo Morales presidenteari, herritar indigenei eta Ama Lurrari kalte egiteagatik". ●

Irantzu Mendia

EMAKUMEEN MEMORIA KOLEKTIBOA IKERGAI

“EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK INTENTZIO POLITIKO ARGIA DU”

Emakumeak gatazka politiko eta armatuetan duen egitekoaz jardun du hainbat ikerketatan, erbesteetan batez ere, genero perspektiba erabiliz beti. Ikertua du emakumeak, gatazkan ez ezik, gatazka ondoko baketze prozesuan ere jokatzen duen rola. Emakumeen memoria historikoa berreskuratzeko lanean beti Irantzu Mendia Azkue.

MIEL A. ELUSTONDO DANI BLANCO

Zein ekarpen egin dezakete kanpoan aztertu dituzun gatazkek gure egoeran? Dela emakumearen egoeraren ikuspegitik, dela politikotik oro har.

Gatazka bakoitza bere testuinguruan aztertu behar da. Zeinek bere berezko historia, subjektu eta dinamikak ditu. Testuinguruak beti mugatuko ditu gatazka bakoitzaren zenbait partikularitate. Hala ere, niri azterketak begirada konparatibo batetik abiatzea interesatzen zait. Horren bidez bakarrik ohartu ahal gara ager daitezkeen antzekotasun eta diferentziez, eta esperientzia ezberdinetatik ikasi. Ez dut uste, beraz, gatazka bakoitza “bakarra eta aldera ezina” denik. Emakumeen bizi-esperientziei dagokienez, ohikoa izaten da ikustea indarkeriak espezifikotasun batzuk hartzen dituela, edonon, generoak zeharkatuta. Sexu indarkeriari dagokionez, batik bat. Gatazka bortitz guztietan ditugu armak hartzearen aldeko hautua egiten duten emakumeak, eta baita hasieratik bertatik bakegintzaren alde kokatzen direnak ere. Nik ekarpen garrantzitsu gisa azpimarratuko nuke herrialde askotan mugimendu feministak egin duen borroka iraunkorra. Gatazken konponketarako espazioetan egoteko aldarri egin du, eta indarkeriak eragindako inpaktuen aurrean lan egin du; egia, justizia eta erreparazioaren agendan, esate baterako.

Hori horrela izan al da Euskal Herriaren kasuan?

Euskal Herriaren kasuan, ez dut ikusi mugimendu feministak hainbeste protagonismo hartu duenik, subjektu gisa, gatazka politiko eta armatuari loturiko gaietan. Ez modu autonomoan, ez bestelako gizarte mugimenduekin aliantzak eraikiz ere. Gurean, historikoki, gatazkaren kudeaketari dagokionez, pisu edo zer esan gehiena alderdi politikoek eta instituzioek izan dute, eta ez hainbeste eragile sozialek.

Irantzu Mendia Azkue

GASTEIZ, 1976

EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakasle da, eta Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuko-Hegoako kide. Hainbat ditu intereseko ikergaiak: gatazka armatuen azterketa feminista, bakea eraikitzea, justizia trantsizionala eta memoria historikoa, besteak beste. Ikuspegi konparatua baliatzen du bere lanean eta El Salvador, Guatemala, Kolonbia eta Mendebaldeko Saharan feminismoak giza eskubideen defentsan eta inpunitatearen kontra gauzatu duen borroka ikertu du. Euskal Herriko Foro Sozial Iraunkorreko Genero Taldeko kide ere bada, eta, bertatik, gure herriko baketze prozesuan emakumeen esku hartzeari ekarpen egiten ari da.

Emakumezkoen aldarriak aberriaren kontrakoak balira bezala hartzen direla esan zenuen behin ARGIA honetan bertan (2004ko urriaren 24a, 1.963 zbkia.) Horretan al zaude oraindik?

Baietz esango nuke. Gatazka eta gatazka osteko testuinguruetan oraindik badago joera hori. Emakumezkoen borroka autonomoa –posizionamendu alderdikoi jakin batzuetatik harago kokatzen dena, alegia–, banaketa edo haustura iturri balitz bezala ulertzeko joera. Muturreko kasuetan, aberriaren kontrako "traiziotzat" ere hartu izan da. Batez ere, emakumezkoen aldarrikapenek "norberaren bandoan" kokatu daitezkeen subjektuen indarkeria salatzen dutenean; eta, bereziki, emakumeen kontrako indarkeria salatzean. Muturreko kasuak ez direnetan aldiz, mesfidantzaz edo ulertezintasunez hartzen dira, maiz, emakumeen aldarriak.

Esate baterako?

Niri aztergai interesgarria iruditzen zait Kurdistango kasua. Izan ere, han, azken urte hauetan gero eta gehiago ari da hedatzen herri kurduaren askatasunaren aldeko borroka, eta aldarri feministen aldekoa, borroka bat bakarra direla. Kolonbian, aldiz, 2016ko Bake Akordioetan genero ikuspegia txertatzea, eta emakumeen eta LGTBI mugimenduko kideen eskubideen aldeko neurriak hartzea, mehatxutzat hartu zituzten eskuineko sektore kontserbadoreek. Horiek, esate baterako, generoaren auzia astindu zuten, Bake Akordioari buruzko erreferenduma ezetzak irabaz zezan.

Gatazkak, oro har, modu berdinean kolpatzen al ditu gizon eta emakumeak?

Ikerketa feministek agerian utzi dutenez, gatazkek eta, bereziki, indarkeriak, inon ez dituzte berdin kolpatzen gizonak eta emakumeak. Dakigunez, jendartearen antolakuntza patriarkalean, gizonei eta emakumeei dagozkien rolak, identitateak, sinesmenak eta baloreak oso zehaztuta daude. Hain zuen, horrexek eramaten gaitu bizi-baldintza eta gizarte posizio desigualak izatera. Gatazka –gerra, barne–, gizarte fenomenoa den heinean, antolakuntza patriarkal horrek berak zeharkatuta dago. Gerrak, gainera, muturreraino eraman behar izaten ditu genero rol tradizionalenak, gerra bera posible egiteko!

"Gerra bera posible egiteko". Zer esan nahi duzu?

Adibidez, jendartean hedatu behar du indarkeria gauzatzeko oso prest dagoen maskulinitatea. Gainera, emakumeak defendatu beharreko propietatea diren irudi zaharra ere berreskuratu egin behar du. Harreman hierarkizatuak

eta autoritarioak ere legitimatu behar ditu, lidergo militarrek euren boterea tinkotu dezaten. Eta abar... Testuinguru horretan, emakumeen eskubideek atzera egiten dute –etengabe, gainera–, eta emakumeen kontrako indarkeria intentsifikatzeko prozesua gertatzen da. Bestalde, jakina da gatazka politiko eta armatuetan, generoaren araberako indarkeria dela-eta, giza eskubide batzuen urraketek neurrigabe inpaktatzen dutela emakumeengan. Adibidez, sexu indarkeria, behartutako migrazioak, eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen galera.

Uda atariko, ekainaren lehenengoan, justizia feministari buruzko mintegia egin zen Bilbon. Zer esan nahi du "justizia feminista"-k?

Feminismoak ezinegon handiz bizi du indarrean dagoen justizia eredua. Mendebaldeko herrialdeetan estatu modernoaren sorrerak errotu eta sendotu zuen justizia sistemaren ardatza ez da inoiz izan emakumeen eskubideak bermatzea. Dakigunez, herritartasun eskubideen eraketa historikoan emakumeak alboratuak izan ziren, eta esklusio horren oinordekoa da ezagutzen dugun justizia sistema. Mentalitate eta jarrera patriarkalek guztiz mugatzen duten sistema horretan aldaketak eragiten saiatu dira emakumeak historian zehar, eta, zehazki borroka feministatik borrokatu da emakumea, legegintzan eta justiziaren gauzatzean eraldaketak lortzeko. Aurrerapenak lortu badira ere, gauzak gehienbat bere horretan dira. Emakumearen testigantzari ez zaio sinesgarritasunik ematen, emakumearen kontrako krimenak ez dira behar bezala hartzen eta ikertzen, biktimak indarkeria instituzionala ere jasan behar izaten du…

Hortik Bilboko mintegia, feminismoak justizia ereduari buruzko gogoeta…

Feminismoak nazioartean eztabaida serio bat abiatu du, eta horrekin batera oraindik definitze prozesuan dagoen "justizia feminista" eredu bat eraiki daitekeen auzia mahai gainean jarri da. Pentsamendu ildo ezberdinak daude horri buruz, eta, ondorioz, justizia gauzatzeko estrategia eta modu ezberdinak. Adibidez, justizia-sistemak dituen joera patriarkalen azterketa aski partekatua bada ere, batzuen ustez sistema barrutik apurtzea, edota eraldatzea, da garrantzizkoena, emakumeen kontrako krimenek duten larritasuna diskurtso eta praktika juridikoan izan beharko luketen lekuan kokatzea –sexu-indarkerien kasua, adibidez–, litigio estrategikoen bidez aurrerapausoak ematen jarraitzea... Beste batzuen ustez, berriz, justiziaren bestelako nozio eta praktikak sortu beharko genituzke, non instituzioak ez bailuke hainbesteko protagonismoa izango, eta bai, aldiz, komunitateak berak. Horrela, indarkeriaren biktimari arreta egokiagoa emango litzaioke –arreta hurbila, zaintzan oinarritutakoa…–, eta justizia eta erreparazioa oinarri lituzkeen erantzukizun kolektiboaren kultura hedatuko litzateke. Ildo honen barruan, badira zigorra, kartzela eta sistema penala bera kolokan jartzen dituzten posizio abolizionistak ere.

Emakumeak torturatzen dituzte, gerretan bortxatzen, abusuak jasanarazten… Ikusgarritasunik batere ba al du emakume horrek?

Giza eskubideen urraketa larri horiek azken hamarkadatan ikusgarritasuna irabaziz joan dira, eta hori mugimendu feministari esker izan da, bai azterketa teorikoen ikuspuntutik eta bai praktika politikoaren ikuspuntutik ere, esfortzu handiak egin direlako. Horretarako, historian zehar eta edonon normaltasunez hartu izan den emakumeen kontrako indarkeria borroka feministaren ardatz bihurtu izana estrategikoa izan da. Indarkeria hori salatzeak eta patriarkatuaren tresna nagusi gisa kokatzeak asko lagundu du horren "desnaturalizatze" prozesuan: indarkeria ez da normala, ez da naturala eta intentzio politiko argia du.

> ***"Gerrak muturreraino eraman behar izaten ditu genero rol tradizionalenak, gerra bera posible egiteko"***

Emakumeak gatazketan jokatu duen rola aztertu duzu han eta hemen. Zer diozu Irun eta Hondarribiko alardeez?

Aztertu ditudan kasu guztietan armak

HAIZE FRESKOA

"Apurka-apurka hurbildu nintzen genero ikuspegira eta horren erabilera politikoaren eragile izan den mugimendu feministara. Neure testuinguruarekin bat eginez eta kontzientzia handiagoa hartuz joan nintzen heinean gertatu zen hurbiltze hori. Leiho bat ireki zitzaidan, feminismoak zabaltzen duen leihoa da. Laster konturatu nintzen hortik datorren haize freskotik arnastu nahi nuela".

ALARDEEN BALIOAK

"Nik, egia esan, ez diot interes handirik ikusten horrelakoak oroitzeari [alardeak, Gasteizko borroka…]. Horiek militarizazioaren eta militarismoaren balioak normalizatzea besterik ez dute indartzen. Seguru nago bestelako gertaera historiko askori eman ahal diegula garrantzia, borroka feministarako edo herrien askapenerako garrantzitsuak izan diren gertaerak".

GATAZKAK

"Gatazken teorian erabiltzen den kontzeptu bat 'ezin landuzko gatazkak' da. Batzuetan, gatazkak iraunkor bihurtzen dira, 'gatazka ahaztuak' direlako. Agenda politikoan edo komunikabideetan agertzeari uzten diote –hala tokian nola nazioartean–, gatazka horiek konpontzeko pausoak ematen ez direlako. Irun eta Hondarribiko alardeak ez dira 'gatazka ahaztuak', baina konpontzeko bitarteko politiko guztiak ez dira jartzen, 'enkistatzen' utzi dira eta, horrela, iraunkor bihurtu dituzte".

Azken hitza
EMAKUMEEN ARTEKO EZBERDINTASUNAK

"Indarkeriak ez ditu emakume guztiak era berean jotzen. Gizartearen hierarkizazioak eragiten dituzten faktoreek ere –dela arrazakeria, klasismoa, kolonialismoa eta abar–, ezberdintasunak sortzen dituzte emakumeen artean".

hartzea erabaki duten emakume borrokalariak egon dira, nahiz eta kopuru aldakorretan. Litekeena da Euskal Herrian izan diren gatazka bortitz orotan ere armak hartu dituzten emakumeak egotea. Alardeen esanahia gerrari loturiko gertaera historiko bati buruz oroimena egitea bada, bertan emakumeak borrokalari gisa agertzea oroitu nahi den errealitatearekin guztiz bat etor daiteke. Baina horrek oraindik gure jendartean emakumeen eta gizonen portaera idealizatu eta estereotipo errotuenak apurtzen ditu, eta, ondorioz, erreakzio matxistak eta kontserbadoreak sorrarazten ditu.

Eta, orduan, horrelaxe segituko dugu beti eta betiko?

Gasteiztarra naiz, eta han, batzuek, gogo handiz hartu dute urtean behin 1813. urteko Gasteizko Borroka errekreatzea Armentiako landetan. Irudiek betikoa erakusten dute: gizon asko soldadu jantzita, fusilak eskuan, oinez edo zaldi gainean... Agertzen diren emakume bakanek zer egiten dute? Fikziozko borroka horretan zaurituta dauden gizonak sendatu. Askoren begietan horixe da gerrari buruzko iruditeria bakarra!

Kapitalismoaren eta patriarkatuaren arteko loturak identifikatzen ere egiten duzu lan. Nola egiten da hori?

Kapitalismoa eta patriarkatua elkar elikatzen duten bi esplotazio sistema dira. Biek ere gauza bera inposatzen dute: gizarte antolaketa eredu jakin bat, non pertsonak eta herriak gutxiengo baten kapitalaren akumulaziorako beharrezkoak diren posizioetan kokatzen baitituzte. Kapitalismoak, bere fase historiko guztietan, indarkeria erabili behar izan du bizirauteko, esplotazio sistema guztien aurrean erresistentziak garatzen direlako, logikoa denez. Bere aldetik, patriarkatuak lan itzela egin du indarkeriaren erabileraren legitimazioari dagokionean. Lehiakortasuna goraipatuz, adibidez: "Indartsuenaren legea"-ren ideia finkatu du, norbanakoen eta kolektiboen arteko harreman hierarkizatu eta injustuak normalizatu ditu, helburu ekonomikoak eta militarrak bateratu ditu.

Harreman injustuak gizon-emakumeen artean, esan nahi duzu?

Bai, nahiz eta ez bakarrik. Hala kapitalismoak nola patriarkatuak, biek ere inpaktu oso negatiboak dituzte gizonezko zein emakumezkoengan, baina inpaktu horiek desigualak dira, gizartean gizonaren bizitzari, eta maskulinitate jakin bati, balio handiagoa ematen zaiolako. Horregatik, pobreen eta prekarizatuen artean emakumeak dira pobreenak eta prekarizatuenak, eta, era berean, horregatik, emakumeen aurkako indarkeriak, gizarte estratu edo klase guztietan ere, konstante bat izaten jarraitzen du. Horri, gainera, historikoa den beste esplotazio sistema bat gehitu behar diogu, hau da, kolonialismoa. Izan ere, kolonialismoa, patriarkatua bezala, kapitalaren akumulazioaren mesederako eraikia izan den sistema bortitza da: Mendebaldeko herrialdeen mugetatik harago zapalkuntza besterik ez du eragiten. ●

Zer aldatzera goazen

KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Badirudi hauteskundeen zurrunbiloan sartu nahi gaituztela berriro, eta ez dakit, horretan sartu aurretik, ez genukeen aztertu beharko azken hauteskundeen eta gobernu osaketen ziklo horretatik zer atera den garbi euskaldunontzat. Sarritan entzun izan dugu Espainiako Estatuak ez duela erremediorik, hor ez dagoela indar nahikorik zinezko aldaketa bat egiteko. Baina jarraian kokatzen dugu geure burua besteen gobernu-formulen alde edota kontra, okerren artean zeinek egingo digun kalte gutxiago argudiatu eta hari erraztasunak ematen. Ez dut esango, laburrean begiratuta, modu taktikoan, hori kontuan hartzeko modukoa ez denik. Baina ez al genuke begirada luzeagoa erabili beharko? Zer norabidetan garamatza taktika horrek?

Euskal Herria noizbait nazio demokratiko beregaina izatea nahi badugu, ardatz estrategiko horrek argitu beharko du une bakoitzean garatzen dugun taktika. Ikuspegi horretatik, azkenaldian egindako zenbait hautuk mesede baino kalte handiagoa egiten digula esango nuke. "Eskuin muturra datorreneko" mamua maisuki erabili dute zenbaitzuek, eta gurean ere eragina izan du, Espainiako Estatua "erremediorik gabe" horri makulua eskaintzeko operazioan sartu baikara bete-betean, bai Madrilen baita Iruñean ere. Egia da eskuin mutur gorrotagarria, une batez behintzat, gobernuetatik urrundu egin dugula, baina trukean zer indartu eta zer ahuldu dugun aztertu beharko genuke zehatz-mehatz.

"Eskuin muturra datorreneko" mamua maisuki erabili dute zenbaitzuek, eta gurean ere eragina izan du, Espainiako Estatua "erremediorik gabe" horri makulua eskaintzeko operazioan sartu baikara bete-betean, bai Madrilen baita Iruñean ere

Esango nuke Estatu horretako botere faktikoak ez direla, haatik, batere ahuldu. Are gehiago, esango nuke botere horiek indartu egin dutela balizko "gobernu alternatibo" horietan betidanik izan duten eragina; ikusi, bestela, sozialdemokrazia espainiar horretako kudeatzaile berriek agertzen duten erabateko ahulezia eta norabide politikoa. PSOE indartu egin dugu, bai, baina era berean indartu dira PSOE barruko *entregismoa* eta menpekotasuna.

Zerbait argitu bada PSOEren zuzendaritza "berritu" horretan, hauxe izan da: ez dutela zirrikiturik ere eskaini nahi, adibidez, Katalunian zein Euskal Herrian dituzten arazoak modu hitzartuan eta demokratikoan konpontzeko bidean. Erabakitzeko eskubidea, aipatu ere ez! Ez eta bitarteko helburu taktikoetan ere; Katalunian darabilten bide errepresiboari uko egin? Bai zera! Preso katalanak askatu? Ez eta behin-behinean ere. Euskal presoak etxera hurbildu? Norbaitek uste du horren erraz askatuko dituztela beraientzat horren estimatu diren presiobideak? Horrela egingo balute, nola mantenduko lukete, bada, oraingo joko taktikoa? Hauteskunde bezperatan promesak bai, baina beti baldintzatuak; hauteskundeen ondoren, guztia ahaztu eta lehengoan jarraitu.

Kontua da hori guztia oso nabarmen gelditu dela, azken hauteskunde deialdien ondoren, Gobernu espainiarra osatzeko prozesu adierazgarri horretan. Orain, hauteskunde berrietara deitzean, ez zaie horren erraz egingo lehengo operazioa errepikatzea. Suposatzen da besteok ere esperientziatik zerbait ikasten dugula. Katalunian bertan, badirudi aldebakartasunaren baztertzea eta PSOEren gobernuarekin elkarrizketa bidea defendatzen zuten *Esquerra*-koak, une honetan "errebisioaren errebisioa" egin eta batasun taktiko-estrategikoaren bidea seinalatzen hasi direla, berriro ere (hala izango ote da, benetan?).

Eta euskaldunok, zer ikasi dugu bidean? Egitasmo kolektibo propioa behar dugula, estrategia beregaina, taktika guztiak horren zerbitzura jarriaz. Bitartean, besteren zerbitzura arituko gara. ●

Zahar berriak

PAULA ESTÉVEZ

BEA SALABERRI
IRAKASLEA

Diskurtso batek euskalgintza gainditutzat ematen du. Entzuna da eta onartua euskalgintzako egituren partetik, uste dut. Badakigu azken urteetako bilakaeran, indarrak eta kemena higatu zaizkigula, neke dela indarberritzea, euskarak ez duela egin aitzina, ez dela inposatu. Ideia horretaz jabe gara, ez baikara itsu, ez baitugu iparra galdu. Diskurtso hori ez da harrigarria, ez da berria eta erranen nuke zabaldua ere dela.

Adibidez, eta zehazki, uda erditsutan zabaldu zen hegemonikotzat kalifikatu hainbat euskal komunikabidetan *Euskalgintza zaharra eta berria* izeneko iritzi zutabe bat. Kontzeptualizazio freskoaren haritik, analisia ezkor bati juntatzen zitzaion ikuspegi baikor bat, adieraziz karrikak beteak direla euskalgintza berriko kidez eta gerorako apustu egiten dutenez.

Zalantza sortu dit, batez ere aipatzeko moldea ez baitzait egokia iduritu. Izan ere, hainbat hitzetan erdeinua sentitu dut euskalgintza zaharra baino tradizionala deituko nukeenari, langileei, egiturei, oro molde biziki orokorrean, izendapenik gabe, ipar eta hego bilduz. Euskalgintza berriaren definizioa aldiz, lausoa zen, zehaztapena merezi luke.

Euskalgintza zaharra zerri askara bota behar omen litzateke, *ema* eta *giza* galduz osatua delako, zeinek paktatzen baitute botere menderatzaileekin. Neurri batean egia da. Bai, azken urteetan, Euskal Herri kontinentalean behintzat, euskal egitura ia guziek hitzarmenak dituzte botere publikoekin. Bilatu ziren aliantzak dira. Hainbat jenderen lanak bideratzeko balio dutenak, lansariak ordaintzeko, lokalak entretenitzeko eta eskaini zerbitzuak garatzeko. Aliantza horiek zepoak izan ote ziren? Baliteke, baina geunden puntuan ez zegoen beste aterabiderik, ez gara kronologia historikotan luzatuko. Horrek alde txarrak ditu: menpekotasuna, ekonomikoa hasteko, etengabeko negoziazioetan ibiltzea, abiadura motelean. Hori gabe ez legoke ikastoletan irakaslerik, ez legoke euskal hedabiderik, ez gau-eskolarik, ez kulturgintzako ekoizpen franko.

Euskalgintzako zaharrak ez nituzke hain okaztagarriki deskribatuko, etsaiez tronpatuz. Norbait erasotzekotan, ez nuke euskalgintza mespretxatuko, eskasak beste batzuengatik baitira, instituzio propioak ez izatearenak hasteko.

Euskalgintza berriak ilusioa ematen du. Azken urteetan entzuna dugu horretaz, ba omen datorrela mugimendu berria, berritua. Galdetzean ea non ote den, zein den, gauzak ez dira hain argi. Euskalgintza tradizionalaren marjinan, euskalgintza ez-instituzional bat ikusten dugu: nukleo txikitan barreiatua lurraldean gaindi, likidoa, mobilizazio azkar eta laburrak, anitzak burutzen dituena, *happening*-aren heinekoak kasik. Bai, periferian daude talde anitz, ekimen anitz. Bai, periferiatik leku zentralagoa behar dute, isolamendutik eta anekdotikoak izatetik gailendu. Haatik beldur naiz, nola edo hala, euskalgintza berri horrek ere menpekotasunik ez ote duenez: diru laguntza tipi bat adibidez, edo lokal bat, edo hautetsi baten babesa?

"Euskalgintza berria" behar da. Denak gaude zain ea noiz egituratuko den, ea noiz agertuko den hirugarren indarra dei genezakeena, menpekotasunik gabekoa, gu ere inplika gaitezen bertan, langile, sortzaile, militante guziak baikara egarri, besteak bezainbat, aukera eta dinamika berriez. Orduan iragartzen da zerbaiten sortzea? Kritiken ondoan, proposamenak edo azalpenak nahi baikenituzke, irakurri ditugunak baino zehatzagoak, Eskertuko genituzke, baita babestuko ere, urteak baitira asmatu ezinean gabiltzala. ●

Txirrindularitzak antolatu gabe duen bira

AINHOA AZURMENDI
EHU-KO IRAKASLEA ETA KIROL AHOLKULARIA

Berriki sarean kritikak irakurri ditut, Euskal Herriko Itzulian azafatak ez egotea erabaki zen arren, EAEko hamaika ekitalditan oraindik ere emakumeak rol horretan jardun dezaten kontratuak izaten direla. Gogoan dut halaber, txirrindularitzan erabaki hura hartu zenean norbaitek emakumeek lana galtzeko arriskua zegoela mahai gainean jarri izana. Harritzen nau auzi horren bueltan azalpenak ematen ibili behar izatea, arazoa ez baita haiek egiten dituzten funtzio horiek guztiak desagertaraztea, lana egiteko betearazten dituzten baldintzak baizik. Hots, bularreko tamaina zehatza eta ile luzea edukitzea, edota gona eta takoiak erabili behar izatea, arropa eta oinetako erosoak erabili ordez. Horretaz gain kontuan hartu behar da txirrindularitzan, pilotan edo motoziklismoan bete behar duten gizonen zerbitzari rola. Azken batean, gizarte matxista batean eraikitako emakume erakargarriaren estetika bermatzea, jarrera pasibo batean itxura polita emanez. Horrelakoetan ikuspegi ezberdinetatik begiratu behar zaio gaiari: batetik, kontratazioa egiten duen erakundearen erabaki-hartze organoa nork osatzen duen eta zein baloretan oinarritzen den kontuan hartuz. Eta, bestetik, feminismoaren kontzientzia ez duten azafata horietako batzuek nola haien askatasuna eta lanaren duintasuna defendatzen duten; nahiz eta tartean, gainera, jazarpen sexuala pairatu behar izan duten –gogoratu Peter Saganek 2013an azafatari ipurdia ukitu zionekoa, edo Rigoberto Uranek 2018an azafatari masailean muxua exijitu zionekoa–. Txirrindularitzan emakumeen gorputza sexualizatu bidez eragin diren diskriminazio egoera gehiago datozkit burura, esaterako, 2014an Kolonbiako emakumezkoen selekzioari haragi koloreko maillota jantzarazi izana, edo aurten UCIko *Health Mate Ladies Team*-eko hiru emakume txirrindularik taldeko zuzendariari haiek sexualki jazartzea egotzi izana. Zer esanik ez, kirol arloaren egituraketan aurkitzen diren mugez, hala nola, lizentzia kopuru txikia, emakumeek lasterketan jokatzen dituzten baldintzak, amatasuna, sariak eta abar. Horrek guztiak adierazten duena da txirrindularitza tradizioz gizonen eremua izan dela, eta azafaten gaia piramidearen ertza besterik ez dela. Beraz, goitik behera berregituratu beharko litzateke, estamentu guztietan emakumeen partaidetza bultzatuz eta haien jarduera duinduz, eta benetan emakume eta gizonen berdintasuna sustatuz. Eta erakunde publikoen egitekoa litzateke bira horretan bidelagun izan eta jarduera guztian berdintasun irizpideak betetzen direla bermatzea. ●

Pribilegioez

CASTILLO SUAREZ
IDAZLEA

Clara Peya piano-jotzaileari Kataluniako Kultura Sari Nazionala eman diote berriki. Oroigarria besoetan, pribilegiatua izan dela esan du, eta eskerrak eman dizkio bere amari, piano bat izan duelako etxean, orduak eta orduak eman dituelako entseatzen, ez zuelako inor zaindu behar eta ez zuelako taberna batean lanean aritu behar izan dirua atera ahal izateko. Nik ere badut piano bat gurasoen etxean. Liburuz inguratuta jaio naiz. Gure ama irakurtzen ikusi dut noiznahi. Gure aitak Euskal Herriko museo, santutegi eta erakusketa guztietara eraman gaitu. Ni ere pribiliegiatua naiz, eta beharbada horregatik idazten dut. Hala ere, ezagutu ditut idazle bikainak libururik izan ez dutenak etxean: Valter Hugo Maek kontatzen zidan *Biblia* besterik ez zutela etxean, zapi batean bilduta edukitzen zuela haren amonak, eta amari liburu bat erosteko konbentzitzea izugarri kostatu zitzaiola. Antonia Vicensek ere ez zuen libururik etxean, eta bat eskatu zuenean etxekoek osasun etxera eraman zuten. Peyak artea iraultza politiko eta sozialerako tresna dela esaten du. Eta hori bada pribilegio bat, ez dagoena denen eskura. ●

Badugu zer ikasi

ARKAITZ ZARRAGA AZUMENDI
EUSKARA IRAKASLEA

Aurten bosgarren urtez joan naiz Caucara, beste kide batzuekin batera Nasa herriko indigenei hizkuntza biziberritzen laguntzera. Euskal Herrira bueltan, sarritan galdetzen digute ea geuk ere ikasten ote dugun haiengandik. Neuri ez zait erraza egiten adieraztea zer den ikasteko dugun hori, baina hiru adibide eman nahi nituzke.

Nasek lurra, kosmobisioa eta hizkuntza indartzea dute helburu. Hiru elementu horietan oinarritzen dute herriaren biziraupena, eta argi dute hirurak lotuta daudela.

Lurrak kolonoek kendu zizkieten eta gaur egun latifundista handiek esplotatzen dituzte. Azukre-kainabera da monokultibo indartsuena eta lau latifundistaren esku daude. Ikaragarri lurralde zabala hartzen dute. Azken urteetan plantazio ilegalek ere nasen landaketa tradizionalak atzera-bidean jarri dituzte. Narkoek eta kokaina eta marihuanaz finantzatzen diren hainbat talde armatuk baldintzatzen dute lurraren erabilera. Landaketa horiek uzteko erabakia hartua dute indigenek, baina armadunak indarrez dabiltza erabaki horiek galarazi nahian. Horretaz ari ginela, Zapataren esaldi famatua bota nion bertako kide bati: *"La tierra para el que se la trabaja"*. Ezetz lagunak. "Amalurra beregaina da, eta erabiltzeko eskubidea ez da lantzen dutenena, zuri progreek esaten duten bezala, komunitatearena baizik".

> Zapataren esaldi famatua bota nion: *"La tierra para el que se la trabaja"*. Ezetz lagunak: "Amalurra beregaina da, eta erabiltzeko eskubidea ez da lantzen dutenena, zuri progreek esaten duten bezala, komunitatearena baizik"

Kosmobisioak bizitzaren alderdi espiritualari eragiten dio bereziki. Gurean alderdi hori zelan landu dugun galdatzen digute sarri. Geuk, apur bat lotsatuta, Euskal Herrian esparru hori kristautasunak hartu duela erantzun behar. Baina askotan ez gara konturatzen zenbat eragiten digun ikuspegi horrek. Aurten, eskola batean umeei familia pintatzeko eskatu genien. Ume batek arbolak, irudiak eta errekak marraztu zituen. Harrituta, hitz goxoz, oso ondo zegoela baina familia bera pintatzeko eskatu nion. Berak honela erantzun zidan: "Hauxe da nire familia, baina zuk oraindik ez duzu ulertzen".

Hizkuntzaren alderdia da gure indargunea. Euskararen normalizazio bidean egindakoa baliatzen dugu eurei eskaini eta nahi dutena har dezaten. Gaur egun umeen zein helduen eskolak sortzen ari dira euren beharrizanak kontuan hartuta, eta sakon ari dira aztertzen zer den benetan behar dutena, zein egoera duten eta non dituzten gabeziak. Helduek hizkuntza eskuratu nahi dute kalean aritu eta hizkuntzari esparru berriak zabaltzen laguntzeko. Horretarako ezinbestekoa dute metodologia egokiarekin asmatzea eta horretan ari gara. Baina gure ekarpena oso lagungarria bazaie ere, asko eskertzen badigute ere, gure ajeak ere agerian geratzen dira, eta aurrekoan Nasa lagunak argi esan zidan: "Helduen eskolak ez ditugu nahi ikasleek azterketak gainditzeko, Nasa moduan bizitzeko baizik". ●

ARGIA

Bizi nahi duen herria!
ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA

Jende gehiagori ahotsa emateko, lagun gehiagorengana heltzeko eta eragiten jarraitzeko
EGIN ARGIAKOA!

BIZKAIA irratia

www.bizkaiairratia.eus

94 446 68 00

HONDARRIBIKO ALARDEA

Problema ez zen bizikidetza, problema berdintasuna da oraindik

Egun alaia izan da irailaren 8a Hondarribiko Alardea berdintasunean ospatu nahi dutenentzat. Emakumeak diskriminatzearen aldekoek iaz eragindako liskar giroa apalduta, inoizko desfile jendetsuena egin du Jaizkibel konpainiak eta herritarren babes handia jaso du. Eztabaidak irekita jarraitzen du ordea: nahikoa al da jai eguna lasai antzean pasatzea? Emakumeek soldadu gisa parte hartzeko eskubideaz hitz egingo da hemendik aurrera?

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA
DANI BLANCO

Irene Nemirovsky idazle ukrainarrak uda bat baino gehiago pasa zuen Euskal Herrian. Biarritz eta Donibane Lohizune ezagutu zituen eta Hendaiako kaleetan pasa zuen bere azken oporraldia izango zena ere, duela 80 urte, 1939an. Ez da harritzekoa hortaz, haren lehenbiziko nobelan –1923ko *Gaizki ulertua*, duela bi urte Alberdaniak euskaraz argitaratu zuena– Lapurdiko herria agertzea, ezta liburuko protagonistak badiaren beste aldera pasatzen ikustea ere, Hondarribira. Irailaren 8ko Alardea honela deskribatu zuen liburu horretan: "Kanoikadak entzuten ziren, fusil tiroak; dena zen hautsa, zarata eta musika; hainbat mutiko talde, txapela belarrietaraino sarturik, elkarri gerritik helduta, kale estuak betean zebiltzan kantari eta oihuka. (...) Barandara hurbildu ziren prozesioa pasatzen ikusteko; amaigabea zen: banderak, kanoi zahar herdoilduak, gizon mozkorrak, beren fusilak atzaparretan zituztela, balantzaka. Eta azkenik, apaizak, beren meza jantzi bordatuekin, aurrean Amabirjinaren imajina bat zutela, kandela irazekiz inguratua; jendea belaunikatu egiten zen hura paretik igarotzean eta, isiltasun hartan, are ozenago entzuten ziren kanpai dangak eta ematen zuen elizako horma zahar belztuak dardararazi egiten zituztela".

Ez dakigu nola deskribatuko zuen aurtengo Alardea Nemirovskyk, nazien herio-makineriaren milaka biktimetako bat izan baitzen. Ezin asmatu beraz, *Suite frantsesa*ren egilea joan den igandean Hondarribiko Kale Nagusian ikusi denarekin baikorra izango ote zen edo ez hainbeste: Jaizkibelek iazkoa baino tentsio txikiagoarekin desfilatu du eta horrek poza eragin du jaietan ere emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna nahi dutenen artean. Baina egunak eragindako euforia pasata, hurrengo urtekoan pentsatzen hasteko unea da.

URTE BAT KALE NAGUSIAN PENTSATZEN

Hondarribian bizi ez den jende askori geratuko zaion galdera da ea zergatik ari den luzatzen hainbeste afera hau. Korapilo honen hariak hobeto ezagutu nahi dituenak bibliografia ona dauka eskura, idatzi dira liburuak eta ikerlanak Alardeak mobilizatzen dituen barru-barruko pultsioei buruz; aztertu da gaia ikuspegi antropologikotik, soziologiaren bidez edo beti presente dagoen politikaren alderditik, besteak beste. Baina, ekarpen horiek baztertu gabe, badago gatazkaren iraupenarentzat oso garrantzitsua den faktore bat, sarritan foku mediatikotik kanpo geratzen dena: Jaizkibelen aurka egin izan diren protestak ez direla zerbait espontaneoa. Alegia, ez dela izan Alardearen eguna iristean herriko gizon eta emakume batzuei berez atera zaien portaera bat. Antolatutako zerbait izaten dela. Hondarribiko emakumeen eskubideen aurka mobilizatutako kolektiboak daudela. Eta politikarien erabakietan eragina daukatela.

Batzuentzat Alardekoa partidu-eguna dela, final bat bezala. Eta finala nolakoa den, halako estrategiarekin atera izan direla zelaira.

Konpainiak desfilatzen hasi baino 24 ordu lehenagotik, zenbait gazte lekua hartzen ari dira Hondarribiko Kale Nagusiko espaloietan. Azken urteetako joera da: beste inor baino lehenago jarri, orduak eta orduak pasa lagunen artean txandak eginez, eta irailaren 8ko goizean lehen lerroan egon Jaizkibelen desfilearen aurka aritzeko, plastiko atzetik. Aurten, kalera iritsi eta berehala ikusi da aldaketa: bi espaloiak estaltzen zituen plastikozko hesiaren ordez, espaloietan zeuden pertsonek zakar poltsa beltzak zeuzkaten jantzita. Zarata gutxiago, Jaizkibelen alde ari den jende gehiago. Eta nobedadeak ordezkaritza instituzionalean: Xabier Ezeizabarrena Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentea (EAJ) udaletxeko arkupeetan dago –Txomin Sagarzazu Hondarribiko alkatea, EAJkoa hau ere, ez ordea; ez arkupeetan, ezta tradizionalki herriko hautetsiek eliza parean hartzen duten lekuan–.

Urtetan Bill Murray protagonista zuen *Marmotaren eguna* pelikularen antza izan ondoren, gauzak mugitzen hasi diren seinalea ote da klima berri hau? Edo aldatu den gauza bakarra desfile diskriminatzailearen alde daudenen aurtengo planteamendua al da? "Beraientzat ez dira 20 urte pasa: hau urtean behin egiten dute, beraientzat 20 egun izan dira", esan zidan Jaizkibel konpainiako kide batek 2016ko Alarde egunaren amaieran. Emakumeak desfilatzen saiatu zirenetik 23 urte bete dira aurten. 23 egun besterik ez dira izan *betiko*entzat?

Ez du ematen hainbesterako denik ere. Plastiko beltzen protesta antolatzen duen Hondarribiko Emakumeak izeneko taldearen Facebookeko orrialdea begiratzea besterik ez dago, ikusteko higadura -gerra bihurtu den gatazka honetan ahalegin handiak egin behar dituztela haiek

ere, posizioak galdu nahi ez badituzte. Urtarriletik ari dira batzarrak deitzen: bederatzi hilabetean bost bilera orokor egin dituzte, azken hiru hilabeteetan hilean bat gutxienez; otsaileko asteburu goiz guztietan San Pedro kalean mahaia jarri zuten Alarde baztertzailearen aldeko sinadurak biltzeko eta txosten informatiboak banatzeko; martxoaren 8arekin lotuta afari bat antolatu zuten eta, bide batez, eskualdeko kolektibo feministen aurkako ohar bat argitaratu ere bai, salatuz emakume langileen nazioarteko eguneko manifestazioan "Emakumeak Alardean" aldarria entzun zela; apirilean, finantzazio-bide gisa, zozketa bat antolatu zuten –telebista bat eta telefono bat ziren sariak–.

Eta hori gutxi balitz, talde horretako figura esanguratsu bat lehen lerroan agertu zen uztailean, Alardearekin Bat ekimena aurkeztu zutenean. Ikastolen alde Euskal Herri osoan antolatzen diren festen antzeko zerbait da: herriko hainbat lekutan prestatutako guneak, mota askotako animazioak, herri-bazkari bat... familiarekin egiteko moduko plana. Diferentzia batekin: dirua Alarde Fundazioak biltzen duela, alegia, emakumeei parte hartzen ez uzteko herriko jai-egun handiko desfilea pribatizatu zuen erakundea, zeinak ez duen betetzen EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea eta, beraz, Nafarroan erregistratu behar izan zuten. Uztailaren 28an ospatu da aurtengo Alardearekin Bat, hirugarren edizioa du jada.

Gauza hauen guztien berri izateko eskualdeko prentsa irakurri behar da, irailaren 8tik aurrera gainontzeko hedabideetan ez baita ohikoa Alardeko gatazka iraunarazteko ezinbestekoak diren ekimenei buruz informatzea. Eta hedabide lokalen kasuan –bereziki gaztelaniaz publikatzen direnenean–, Hondarribiko kirol talde bati edo elkarte gastronomiko bati buruz bezain normal informatzen da emakumeek Alardean parte hartzearen aurka urtean zehar antolatzen den guztiaz.

PITZADURAK HARRESI BELTZEAN

Nemirovskyk Alardeko giroa deskribatzen jarraitzen du: “Miarritze guztia, Donostia guztia eta espainiar probintziako biztanleria guztia, hasi Irundik eta Iruñerainokoa, bertan ziren. Umemoko zirrimargotu batzuk borrokan zebiltzan eta elkar iraintzen zuten euskarazko eta gaztelaniazko hitzak nahasten zituen mordoilo ulertezin batean. Neskatxa ederrak paseatzen zebiltzan buru hutsik, buruzapi bordatua sorbaldan zutela. (...) Adineko emakume batzuek mantelina beltzez estalia zeukaten burua”.

Ia mende bat geroago, Jaizkibel pasatzean txalo jotzen ari den jendearen artean ere, herriko bizilagunez gain, badago kanpotik etorritakorik. Jaia bera bezain aspaldikoa den ohitura dirudi. Zapi koloretsuak sorbaldan eramateko joerak ere indarrean jarraitzen du, orain emakumeek parte hartzearen aldeko

ERTZAINTZAK JAIZKIBEL KONPAINIAREN ALDEKO PANKARTA BAT KENDU ZUEN, PANKARTAK JARTZEA DEBEKATUTA DAGOELA ARGUDIATUZ. URTETAN EZ DITUZTE ALARDE DISKRIMINATZAILEAREN ALDE JARRITAKO PLASTIKO BELTZAK ETA KARTELAK KENDU ORDEA.

ikur bihurtu da eta Euskal Herriko Mugimendu Feministaren deialdiari erantzunez elkartu diren askoren janzkeran ikusten da osagai hori.

Nemirovskyk aipatzen zituen mantelina beltzak berriz, plastikozkoak bihurtu dira. Baina ez dira eternalak azkeneko urteko mugimenduei erreparatuz gero: 2018ko Alardean diskriminazioa defendatzen dutenek buelta bat estutu zuten haien jazarpena, Jaizkibeleko kide askok salatu zituzten erasoak eta irainak, baita kazetari batzuek ere, eta horrek herritar asko inflexio-puntu batera eraman ditu. Baita Alarde Fundazioa elkarrizketa prozesu batez hitz egiten jartzera ere –ñabardura askorekin, hori bai–.

"Elkarrizketa" izan da Alardearekin lotuta 2019an zehar gehien entzun den hitzetako bat. Ez dago adostasunik noren artean eta zertarako hitz egin behar den ordea. Gipuzkoako Foru Aldundiak auzia bideratzeko bitartekari bat jarri zuen iaz, baina aurtengo ekainean jakin zenez, dagoeneko ez da lan horretan ari, ez zuelako lortu Alarde Fundazioko partaideen "konfiantzarik". Ekimen hori baztertuta, Alarde diskriminatzailearen aldeko elkarteak elkarrizketa-eredu propio baten alde egin zuen otsailean, iaz bizi izandako "tentsioa baretzea" beste helbururik jarri gabe. Herriko eragileak bakarrik esertzea proposatu zuen eta Hondarribiko alkatea izatea moderatzaile. Apirilean, Sagarzazuk baiezkoa eman zion planteamendu horri. Jaizkibel konpainiak ere onartu zuen hitz egiteko gonbidapena, bi baldintzarekin: bitartekaria bi aldeek onartutako norbait izatea, alegia, figura neutral bat –Sagarzazu alkateak Alarde baztertzailean parte hartzen du eta Jaizkibelek ordutegia aldatu beharko lukeela defendatu du publikoki– eta elkarrizketen helburua izatea "irtenbide adostu" bat lortzea. Abuztuan, Hondarribiko Udalak elkarrizketa bideratzeko izendatutako bitartekariak, Jenny Piercek, bertan behera utzi zuen bi aldeen artean egitekoa zen bilera, denbora gehiago behar zela argudiatuz enkontrua lasaia izan zedin. Elkarrizketari buruzko elkarrizketan trabatuta iritsi da iraila.

Beste alor batzuetan gehiago aurreratu da: Jaizkibel konpainiak Alardearen aurretik egin dituen entseguetatik sumatu da inoiz baino jendetsuagoa izango zela aurtengoa, baita babesa adierazten dieten jende kopuruaren aldetik ere. 1.000 laguneko zifrara gerturatu den desfilea egin du herriko jai egun handian. Ez dago Alardean jende kopuru hori berdindu dezakeen konpainia bakar bat ere. Eta zenbaki absolutuetan Alarde baztertzailea oraindik nagusi den arren, zilegitasunaren balantza desfile parekidearen alderantz joaten ari da.

EZ DAGO BIZIKIDETZA ARAZORIK, BERDINTASUN FALTA BAI ORDEA

Beste ariketa bat egitea ere komeni da gauzak aldatzen ari direla ikusteko: Alardeaz medioetan agertzen diren irudi gehienak Kale Nagusikoak izaten dira. Logikoa da alde batetik, hor gertatzen direlako tentsio handieneko momentuak. Baina, bestetik, Jaizkibelen aurka daudenei herrian dutena baino pisu handiagoa ematen die, ematen du emakumeek parte hartzearen inguruko iritzi-giroa kale horretan gertatzen denaren arabera neurtzen dela. Eta hori ez da oso fidela konplexuagoa den errealitatearekiko.

Kamerak beste puntu batzuetan jarriz gero, eszena oso diferenteen berri izango lukete gaiaz informatu nahi dutenek: minutu gutxi falta dira 8:00ak izateko eta Gernikako Arbola pasealekutik aurrera joan da Jaizkibel. Geldialdi bat egin du Kale Nagusian gora abiatu aurretik. Urduritasuna sumatzen da kideen artean, aurten zer aurkituko duten jakin nahia, baina beste gauza batzuk ere gertatzen ari dira: taberna bat dago ondoan eta konpainia baztertzaileetako gizonak bertan, tragoak hartzen. Baina ez dago liskarrik haiekin. Naturaltasunez agurtzen dute elkar Jaizkibeleko kideek eta beste konpainietakoek, batez ere gazteek. Bizilagunak dira edo senideak edo klasekideak edo kuadrilla berekoak, elkarrekin hizketan, batek besteari zigarro bat pasatzen, txantxaren bat edo beste, *selfie* bat... jaietako egun normal bat. Ordu batzuk geroago, arratsaldean, Jaizkibel San Pedro kalean desfilatzen ari da eta hondarribiar gehienek beste

UZTAILAREN 28AN OSPATU ZEN ALARDEAREKIN BAT IZENEKO JAIA, ALARDE DISKRIMINATZAILEA BABESTEN DUTENEK FINANTZATZEKO ANTOLATZEN DUTEN EKITALDIA.

edozein konpainiari bezala begiratzen diote. Agian oraindik batzuei kosta egiten zaie txaloak jotzea, baina kale honetan, herriko bizitza soziala egituratzen duen arrantzale etxeen artean, giroa ez da Kale Nagusikoa. Hura Alarde diskriminatzailearen azken gotorlekua baita. Handik aterata, beste itxura bat du herriak. Beste irudi horrek, ordea, puskatu egiten du problema hau herritarren arteko bizikidetza-arazo bat bezala aurkeztu nahi dutenen kontakizuna.

Kalean normala dena instituzioetan ere normala izan behar litzatekeela esaten zuen Trantsizio garaiko politikari batek. Hondarribiko, Gipuzkoako eta EAEko erakundeek ere aplika diezaiokete printzipio hori beren buruei afera honetan: urtetan konpainia parekidearen aurrean erakutsi duten mututasuna adierazgarria da –salbuespen bakarra Gipuzkoako Foru Aldundian Bildu egon zen garaian gertatu zen– eta horrek hegoak eman dizkio Alarde baztertzaileari. Gai hau "bizikidetza arazo" soil gisa planteatzea ere, Gipuzkoako Aldundiak egiten duen moduan, sakoneko problema urardotu nahi dutenekin bat egitea dela geroz eta nabarmenago geratzen da.

Irailaren 8a pasako da eta 365 egun geratuko zaizkie erakundeei gai honetan perspektibaz aldatzeko. Urte batez Alarde parekidearen aldekoek jaia tentsio gutxiagorekin bizitzeak ez baitu beste guztia aldatzen: konpainia batek besteetatik bereizita desfilatzen jarraitzen du, emakumeak ere partaide direlako. Eta hori normaltzat hartuz gero, nolako aurrekaria jartzen da, ez bakarrik Hondarribian, baita instituziook gobernatzen duten gainontzeko lekuetan ere? ●

PABLO ORTIZ DE LATIERRO FERNANDEZ
TREBIÑUKO KONDERRIKO ARGANTZUNGO ALKATEA

"Zarata atera behar dugu, politikoek jakin dezaten integrazioa nahi dugula"

Euskal Herriko mapa administratiboan hainbat zatiketaz gain, bada zulo bat Araba erdian: Trebiñu barrendegia. Sen onak eta herritarren nahiak Trebiñu Araba dela badiote ere, Madrilek Gaztela eta Leon erkidegoan mantentzen du. Araban integratzeko aldarrikapena historikoa da, eta hainbat modutan adierazi da. Herrikoiena, 1998ko erreferenduma. Bi udalerrik osatzen dute barrendegia, Trebiñuko konderriak eta Argantzunek. Azken udal hauteskundeetan, berritasun bat gertatu da Argantzunen. Herritarrek alkate ezkertiar eta abertzale bat hautatu dute lehenbiziko aldiz, EH Bilduk irabazi ostean.

Z. OLEAGA
DOS POR DOS

Hauteskundeen osteko berrien artean *El Pais* egunkariaren lerroburu batekin egin dut topo: "Euskal independentismoa bozkatzen duen Burgosko herria".
[Barrez] Bai, batez ere Espainiako eta Burgosko komunikabideak kezka horrekin etorri dira hona. Baina beno, herri txikietan pertsonak bozkatzen dira, siglek badute bere garrantzia, baina ez Gasteizen edo Bilbon beste.

Hori horrela bada, siglatik harago ze pertsonari eman diote bozka Argantzungo herritarrek?

Automozioko enpresa batean lan egiten dut eta LAB sindikatuko delegatua naiz orain dela bederatzi urte. Herri mugimenduetan aritua naiz, garai batzuetan gehiago besteetan gutxiago, batez ere Trebiñuko integrazioren alde. Herrian beti prest egon naiz jaietan, auzolanetan edo dena delakoan kolaboratzeko.

Lehen aldiz alkate ezkertiar independentista bat Trebiñun.

Espero zenuten?
Bai. Aurreko legegintzaldietan hauteskundeak irabazi dituen zerrenda independentea ez da aurkeztu, bestela berriz ere irabaziko luke. Hori horrela, bagenekien lehia gu eta EAJren artean egongo zela. Sorpresa ez da izan.

Zeintzuk dira zuen asmo nagusiak legegintzaldiari begira?
Bi bide nagusi ditugu. Bata, integrazioa. Irailetik aurrera Trebiñuko Udalarekin bilduko gara, ia plangintza bat adosten dugun konderria Araban integratzeko. Bigarrena egunerokotasuna da. Proiektu batzuk aurreko legegintzalditik amaitu gabe daude, eta guk beste ideia batzuk ere baditugu. Adibidez, erromesen ospitalea berriztatzen ari da. Obra garrantzitsua da, eta dirutza eskatzen du. Fasez fase ari da egiten, laugarrenean gaude. Proiektu polita da, hainbat funtzio beteko dituena: aterpetxea, nagusientzako lokala edo eguneko zentroa, taberna, liburutegia.

Herrian bi errota ditugu, horietako bat publikoa. Sei edo zazpi urte direla proiektu bati eman zitzaion hasiera, bertan turbina bat jarri eta energia sortzeko. Confederación Hidrográfica del Ebroren zain geunden, eta ematen du azkenean baimena sinatuko dutela aurten. Ekologikoki sortutako energia litzateke. Ondoren, erabaki beharko dugu energia horrekin zer egin: enpresaren bati saldu, herriko eraikin publikoetara bideratu, kaleko argiztapen sarearentzat erabili, edo zer. Kale batzuk ere konpondu behar dira, eta zenbait zerbitzu hobetu.

Integrazioa helburu nagusien artean jarri duzue. Borroka historikoa da Trebiñun, oso garai ezberdinak bizi izan dituena.
90. hamarkadakoak izan ziren unerik indartsuenak. Trebiñu Egunak, 98ko erreferenduma... hor ezagutu nuen nik mugimendua. Ez nintzen oso sartua egon, baina kolaboratu egiten nuen hainbat kontutan. Erreferendumaren

ostean bertan behera geratu zen dena. Egon dira bizpahiru saiakera berpizteko, baina izan dira udaletatik, eta ordukoa herri mugimenduak bultzatu zuen. Herri mugimendua nahiko motel dago orain. Ea orain udaletatik eta gizartetik bertatik mugitzeko gai garen. Trebiñuko Udalean EAJ dago agintean, eta printzipioz haiek ere integrazioaren alde daude. Ea plangintza bat adosten dugun bien artean, helburuak lortzeko. Egin behar dugun lehendabiziko gauza zarata da, politikoek jakin dezaten hemen gaudela eta integrazioa nahi dugula.

Zergatik diozu herri mugimendua ahul dagoela?

Maila kolektiboan ez dago mugimendurik. Badaude zenbait pertsona noizean behin ideiak proposatzen dituztenak edo zer edo zer egiten dutenak. Baina gutxi. Sentimendua badago herritarrengan, baina aritu direnak oro har nekatuak daude. 20 urte lehenago gauza asko egin ziren, baten bat txarto baina gehienak ondo, baina ez zen irtenbiderik lortu. Urteetako borrokaren ostean irtenbide eza inposatu zen. Normala da jendea erretzea eta nekatzea. Ea berriz ere grina hori pizten dugun.

Nondik ikusten dituzu aukerak edo zirrikituak egun?

Lehendabiziko urratsa udalak eman behar du, jendeak ikus dezan aukerak badirela. Plangintza zehatza orain osatu beharko dugu. Kanpainan EH Bilduk konpromisoa hartu zuen gauden erakunde guztietan integrazioa puntu garrantzitsua izan dadin.

Espainiako Estatuan integrazioa aldarrikapen independentistekin lotzen da maiz. Herrian?

Herrian ez. Gasteizera 20 kilometro ditugu, Burgosera 100. Paper batzuk egiteko Briviescara edo Burgosera mugitu behar dugu. Herria ikusten duzu eta oro har ondo dago, polita, baina zerbitzu aldetik eskas gabiltza, eta beharrak egon badaude.

Aferak erabakitzeko eskubidearekin duen lotura eta nazio gatazkarekin erlazionatzea erakundeetan irtenbideak emateko oztopo dira?

Orain dela urte batzuk bai, orain ETA gabe, eta euskal gatazka nahiko mantso dagoenez, agian horrek lagunduko digu. Gu horrekin joango gara. Hau ez da independentisten aldarrikapena, herriaren nahia da. Integrazioaren alde Bildu, EAJ, PSOE eta PPko pertsonak gaude. Denok ez, baina gehienok integrazioa nahi dugu.

Ongizatea duzue beste lerro nagusia. Zeintzuk dira beharrak eta nahiak?

Herrian 500 pertsona daude erroldatuta, baina bizi 800 edo 900 bizi gara. Horrek gaitasunak baldintzatzen ditu, finantzazioa erroldaren araberakoa bai-

ta. Gastuak sarrerak baino handiagoak dira. Guk hitzarmenak kritikatu ditugu [2018ko apirilean Arabako eta Burgosko aldundiek hitzarmenak sinatu zituzten zazpi esparrutan] adabaki bat iruditzen zaigulako, integrazioaren aldarrikapena indargabetu nahi duena, zerbitzu batzuekin konforma gaitezen. Baina adibidez neguan elurra egiten badu garbiketa asko atzeratzen da. Edo larrialdia baduzu, esaterako etxe bat sutan dagoelako 112ra deitzen baduzu, Gasteiztik edo Mirandatik etortzen dira edo ez dator inor. Horrelakoak gertatu dira. Errepideetan nabaria da ere Arabakoak Gaztelakoak baino hobeto daudela.

Nekazaritza sektore garrantzitsua da Trebiñun historikoki. Zein da bere egoera?
Gero eta esku gutxiago gero eta lur sail handiagoren jabe dira. Araba osoan gertatzen ari da, dena da produkzio industriala. Zereala da nagusi. Patata eta erremolatxa desagertu ziren, etxeetarako ez bada. Aukera bat litzateke sailak murriztea eta produkzio motak ugaritzea, baina eraldaketa oso zaila da.

Euskararen errealitatea zein da Argantzunen?
Ezagutza gutxi gora behera Gasteizen dagoenaren antzekoa da. Euskara ez da asko entzuten, zertxobait bai, baina gazteek gutxi darabilte. Ikastola orain hamasei urte inguru hasi zen lanean. Estreinatu zutenek hemezortzi urte inguru dute egun, agian urte batzuk barru euskara gehiago entzuten hasiko gara. Baina hori bakoitzaren nahiaren araberakoa da. 40 urtetik gorakook gutxik dakigu euskaraz.

Zu nola euskaldundu zinen?
Gasteizen ikasi nuen. Lehen eta bigarren hezkuntzan euskara ikasgai bat gehiago zen, astean bizpahiru ordu eta listo. 26-27rekin barnetegira joan nintzen, eta orduan hartu nuen elkarrizketa bat euskaraz izateko gaitasuna.

Euskara sustatzeko orduan nola eragiten du konderriaren egoera administratiboak?
Euskara teknikari bat badugu, Arabako Aldundikoa. Kuadrilla guztietan daude. Bi egun egoten da hemen eta beste bi Trebiñun, jardunaldi erdian. Ekimen kultural dezente antolatzen ditu, bere lana ez den arren bandoak edo bestelako komunikazio ofizialak euskaratzen ditu. Korrikarekin paraleloan jarduera gehiago antolatzen dira, Korrika Txikia ere bai. Ikastolatik hiru Araba Euskaraz antolatu dira herrian. Zaila egiten da, gazteen erabileran dago gakoa.

Integrazioaren aldeko urteetako borrokaren ostean irtenbide eza inposatu zen. Normala da jendea erretzea eta nekatzea. Ea berriz ere grina hori pizten dugun

Ikastola garrantzitsua izango da herrian euskarari begira.
Bai. Hura gabe euskararen erabilera txikiagoa litzateke. Gazteak euskaraz entzutea garrantzitsua da helduek euskara normaltasunez onar dezaten. Administratiboki arazo handiak jarri dizkiote, batez ere finantzazio aldetik. Burgosen egon zen alta emanda, baina kontzertatuta egoteagatik ez da dirurik heldu. Trebiñun eskola publikoa dago, gaztelera hutsean, 60 ume inguru dituena. Ikastolan 50en bueltan dabiltza. Azkenik lortu dute Eusko Jaurlaritzarekin kontzertatzea. Hemen zeuden eta orain joan dira ondoko Manzanos herrira, Araba delako ofizialki. Baina eraikina ez da herritik joango. Lehen hezkuntza Manzanosera eraman da, eta txikiagoak hemen bertan daude. Herriak kolaboratzen du ikastolarekin. Argia edo garbiketa herriak hartzen du bere gain, herritarrak pozik daude gure ikastolarekin.

Bizi dago hezkuntzan publiko eta kontzertatuen arteko eztabaida.
Ni publikoaren aldekoa naiz, hezkuntzan zein osasun arloan. Baina hau irla bat da, eta hemen publikoa eta euskaraz bateraezinak dira Gaztela eta Leonek ez duelako nahi. Integrazioa lortu bitartean, hortaz, hau da gure aukera bakarra.

Zer eragozpen dakarkizue administratiboki Burgosen bizitzeak?
Osasunaren esparruan egin zuten hitzarmena Burgosko eta Arabako aldundiek, eta Araban artatuak izan gaitezke, baina beti beste batzuen erabakien menpe gaude. Eta ez du dena konpontzen: emakume nagusi batek, esaterako, iktus bat izan zuen eta Burgosera eraman zuten erresidentziara. Familia herrian eta Gasteizen bizi zen, eta emakumea bisitatzeko ia Burgoseraino joan behar zuten. Ikasteko autobusak antolatzeko zailtasunak areagotzen dira.

Zer lotura du Trebiñuk Araban integratu edo ez erabakitzea, Euskal Herriak Espainiarekin duen harremana erabakitzearekin?

Bi gai dira eta ez ditugu nahastu behar, hori da Gaztela eta Leonetik egin dutena integrazioa ez emateko. Batetik integrazioa dago, eta hor denok batera goaz. Gero bakoitzak bere ideia propioak ditu. Guk Euskal Herri independentea nahi dugu, baina gauza bakoitza bere bidetik joan behar da.

Zer diren politikaren bidezidorrak... Javier Marotorekin egoera administratiboa partekatzen duzu orain.
[Barreak] Bai, bai. Baina Marotok iritzia aldatu du. Gasteizen zegoenean esaten zuen Trebiñu Araba dela, eta orain irakurri diot Gaztela eta Leongo PPk esaten duena esango duela berak ere.

Trebiñuk ezezagun samarra izaten jarraitzen du.
Euskal Herriko jendea gonbidatu nahiko nuke gure egoera ezagutzera. Donostian adibidez gertatu zitzaidan: "Nongoa zara?", "Trebiñukoa", "Trebiñukoa... hori non dago?", "ETBko eguraldiaren mapan agertzen da ba hutsune bat Araba erdian?", "Hori ez al da Arabako urtegia?" [barreak]. Elkarrizketa hau Cáceresen gertatzea bale, baina, arraioa!, hemen Euskal Herrian... Alderdietatik ere egin behar da lan gure errealitatea ezagutarazteko. ●

«AEBek agindu eta Europak obeditu egiten duen erakundea da NATO»

PATRICK MBEKO, POLITOLOGOA

Patrick Mbeko politologo kongoarra Kanadan bizi da eta aditua da Afrikako gerretan Mendebaldeko potentziek jokatzen duten paperean. Hainbat liburu argitaratu ditu: *Le Canada dans les guerres en Afrique centrale* (Kanada Erdialdeko Afrikako gerretan) edo *Objectif Kadhafi* (Helburua: Kadafi) besteak beste. Europako hainbat herrialdetan azken liburu hau aurkezten izan da, eta Askapenak antolatuta, Bilbora eta Baionara etorri da. Afrikaren eta Libiaren historiari buruz hitz egiteko aukera izan dugu berarekin.

IÑAUT GONZALEZ DE MATAUKO RADA
IÑIGO AZKONA

Zergatik da hain estrategikoa Kongoko Errepublika Demokratikoa?

Batetik Afrikan duen egoera geografikoagatik, Ozeano Atlantikora baitu irteera. Bestalde, baliabide mineraletan munduko herrialderik aberatsenetarikoa da. Baliabide hauek oso garrantzitsuak dira industria militarrarentzat eta teknologikoarentzat. Kongok koltan asko du, telefono modernoetan eta ordenagailuetan oso erabilia; kobaltoa ere ugaria da bertan, auto elektrikoen baterientzat beharrezko lehengaia; herrialdeko mineralik garrantzitsuenetariko bat uranioa da, industria militarrarentzat beharrezkoa. Urrea eta diamanteak ere badaude, besteren artean. Munduko potentzientzat beharrezkoak diren lehengaiez josia dago, eta honek egiten du Kongo hain garrantzitsu.

> *"Munduko potentzientzat beharrezkoak diren lehengaiez josia dago Kongo, eta honek egiten du hain garrantzitsu"*

Euskal Herrian, eta orokorrean Mendebaldeko herrietan, Kanada herrialde baketsu eta neutral gisa dugu, baina zuk *Le Canada dans les guerres en Afrique Centrale* (Kanada Erdialdeko Afrikako gerretan) liburuan zalantzan jarri duzu uste hori. Zein da Kanadaren papera Afrikako gerra inperialistetan?

Gainetik begiratu ezkero, Kanadak ez duela historia inperialistarik pentsatuko duzu. Baina gertutik so eginda, ulertuko duzu herrialde hau gerra askotan aritu dela urtetan. Horrez gain, argi izan behar dugu Kanada meatzaritza industrian munduko lehenengo potentzia dela. Munduko meatzaritza industriaren %75 han dago oinarrituta, bertako gobernuak duen legedi berezia dela eta, kanpoko meatzaritza industria erakartzen baitu. Kanada AEBen aliatu nagusia da; AEBek ezin badute herrialde batean esku hartu, Kanadari eskatzen diote laguntza. Jendeak hau ez daki, Kanadak ez baitu ageriko historia inperialik. Irakeko gerran argi geratu zen. Kanadak ofizialki ez zuen gerran parte hartu, baina AEBei laguntzen ibili zen. Gaur egun Venezuelan, berdin. Afrikan, meatzaritza enpresa gehienak kanadarrak dira, eta enpresa hauek gerra finantzatzen dute Kanadako Gobernuaren babesarekin. Horregatik diot historia inperialista urria duen herrialdea dela, isilean egin baitute dena eta AEBek berriz agerian. Kanadak herrialdeak laguntzeko aitzakiarekin, hauek ezegonkortzen ditu bere interesen alde. Ez du armada handia, Gobernuz Kanpoko Erakundeak eta nazioarteko egiturak erabiltzen baititu herrialdeak ezegonkortzeko.

Libiari buruz eta zehazki Muammar al Kadafiri buruz ere asko ikertu duzu *Objectif Kadhafi* (Helburua: Kadafi) liburuan. Bertan Kadafi Mendebaldeko potentzien etsai goiz bihurtu zela diozu, 70eko eta 80ko hamarkadetan. Zergatik hil zuten orduan 2011n?

Askotan saiatu ziren lehenago hiltzen, baina ez zen erraza izan haientzat. Frantsesak, estatubatuarrak, israeldarrak, britainiarrak... hura hiltzen saiatu

ziren. Denbora luzea behar izan zuten, Kadafi ez baitzen tentela.

Europako herrialde askorentzat Kadafi laguna eta aliatua zen; Nicolas Sarkozy eta José María Aznarrentzat, esaterako. Baina egun batetik bestera "tirano" bihurtu zen. Aditu askok dio dolarra erreferentzia gisa albo batera uztea erabaki zuelako izan zela, Afrikako moneta batua sortzeko asmotan.

Arrazoietako bat da. Kadafi eta Mendebaldearen arteko arazo nagusia zen ezin zutela kontrolatu. Sarkozyk armak saldu nahi zizkion, hamar mila milioi dolarretako operazioan, baina honek ezetz esan zion, Errusiarekin negoziatuko zuela. Eta AEBekin gauza bera gertatu zen. Kadafik Afrikako moneta batua sortu nahi zuen, Afrikako Bankua... dena Afrikarentzat. Kadafiren helburua kontinentea munduko mapan jartzea zen, munduan garrantzia irabaztea, baina Mendebaldeko potentziek Afrika kontrolpean edukitzen jarraitu nahi zuten. Horregatik bihurtu zen haien etsai, eta horregatik hil zuten. 2009an Libian zeuden AEBetako enpresa guztiak nazionalizatzen saiatu zen, horregatik hura hiltzea lehenetsi zuten, eta Udaberri Arabiarraz baliatu ziren horretarako.

Udaberri Arabiarrean hedabideek esan zuten protestak gertatzen ari zirela herritarrak ez zeudelako gustura Kadafirekin, baina protestak ezberdinak izan ziren herrialdez herrialde. Libian eta Sirian, adibidez, protestan ari ziren manifestariak armada izatera pasa ziren egun batetik bestera. Zergatik gertatu zen hori?

Egipton eta Tunisian manifestariak zibilak ziren, baina Libian eta Sirian NATOk armatuta zeuden. Horien artean gehienak islamistak ziren, eta nire liburuan diodan bezala, Libian zeudenak Siriara joan ziren ondoren. Ez ziren demokrazia eske baketsuki manifestatzen ziren zibilak, ordaindutako misio bat zuen jendea baizik.

Libia suntsituta dago gaur egun. NATOren esku-hartze militarraren ostean gobernu bat baino gehiago du, herrialdea banatuta dago. Nola deskribatuko zenuke egoera?

Kaosa. Egoera kaotikoa da benetan. Bi "gobernu" daude egun: bata Tripolin eta bestea Tobruken, Khalifa Haftar jeneralaren agindupean, eta biak herrialdearen kontrola eskuratzeko borrokan ari dira elkarren artean. Bitxia da, eskualdeko indarrek eta Mendebaldeko herrialdeek bi gobernuak laguntzen baitituzte. Ehun milizia baino gehiago daude, ehun! Orain, baina, Libia ez da herrialde bat, edozeinek nahi duena egin dezakeen lekua da.

Zer esan diezagukezu Khalifa Haftar Libiako Armada Nazionalaren buruzagiari buruz?

Kadafiren gobernuko kidea zen, eta 80ko hamarkadaren hasierako Libia eta Txaden arteko gataskan txadtarrek bahitu zuten. Ondoren, traizioagatik armadatik kanporatu zuten, eta AEBek fitxatu zuten, CIAko agente bihurtuz. Udaberri Arabiarraren aurretik Virginian egon zen bizitzen, eta Libian gerra hasi zenean, CIAk bertara itzularazi zuen Kadafiren aurka borrokatzera.

> *"NATO erakunde kriminal eta terrorista da, edonora daramatza gerrak herrialdeak kontrolatu eta ustiatzeko"*

Batzuetan badirudi NATOk aitzakiak behar dituela esku-hartze militarrak egiteko, eta ez dituenean, asmatu egiten dituela, Iraken edo Kuwaiten esaterako. Gauza bera gertatu al zen Libian?

Udaberri Arabiarraren istorio honetan, NATO bertan sartuta zegoen. Hainbat manifestazio bultzatu zituen, eta orduan Kadafi manifestari hauek hiltzen ari zela zabaldu zuten. Gaur egun badakigu ez zela egia. Britainia Handiko parlamentuak afera honi buruzko ikerketa argitaratu zuen, non onartzen zuen Kadafik ez zuela manifestaririk hil, baina dio honek aitzakia bezala balio izan zuela herrialdea inbaditu eta agintaria hiltzeko.

Urtetan NATOk milioika pertsona hil dela zenioen hitzaldian. Gehiegizkoa al da esatea NATO erakunde terrorista dela?

NATO erakunde kriminal eta terrorista da. Edonora daramatza gerrak, herrialdeak kontrolatu eta bertako baliabideak eskuratzeko. Libiaren kasuan, zibilak babestu nahi zituztela esan zuten. Bengazi hirian 6.000 pertsona babesteko 100.000 baino gehiago hil zituzten. Ikaragarria da, erakunde kriminala da.

Artikulu batean diozu afrikarrek ez dakitela Libia eta Kadafiri buruzko egia egunero CNN kate estatubatuarra ikusten dutelako. Zein da Mendebaldeko hedabide nagusien paper estrategikoa Afrikan?

Hedabideek botere handientzat egiten dute lan, eta interes pribatuek kontrolatzen dituzte. Hedabideen papera, beraz, gizartearen pentsamendua gidatzea da, herritarrek zer pentsatu behar duten esateko, zer babestu behar duten buruetan sartzeko. Hau da hedabideen arazoa, gure garunak kontrolatzen dituztela eta egunero gezurrak esaten dizkigutela, baita hemen ere.

BBC telebista-kate ingelesa Erresuma Batutik kanpo gehien ikusten duten lehen hamar herrialdeen artean AEBak dira Mendebaldeko herrialde bakarra; beste guztiak periferiako herrialdeak dira: Nigeria, India, Bangladesh, Iran, Afganistan...

Bai, hala da. Ulertu behar dugu BBC edo CNN bezalako telebista kateek ez dutela egia islatzen. Hau da jendeak jakin eta ulertu behar duena. Ez sinetsi hedabide nagusietako kazetariei. Gaur egun batzuek nahiago dituzte hedabide alternatiboak, ez baitute gezurrik esateko motiborik edo beharrik.

AEBen benetako paperaz ohartzeko bertan edo Kanadan bizi behar zarela diozu. Zer dela eta?

AEBetan edo Kanadan bizi bazara, ulertuko duzu nola pentsatzen duen jende honek. "Europarrak gure aliatuak dira" esatea modan dago egun, politikoki zuzena da; baina errealitatean ez dute hori pentsatzen. Haientzat europarrak tresna bat dira. Gaur egun Donald Trumpekin argiago ikus dezakegu hau, Trump bera ez baita politikoki zuzena, berdin zaio. Europarrek ez dute hau ulertzen, baina uste dut orain Trumpen legealdiarekin ulertzen hasi direla. Europako herrialdeek AEBak aliatu gisa dituzte; AEBek, aldiz, tresna gisa dute Europa. NATOn AEBak buruzagiak dira, eta Europak hori ordaindu behar du. AEBek agindu eta Europak obeditzen duen erakundea da NATO. ●

ESKUETAN
MIREN ETA JOXE ANGEL MUNDUATE BEREN OSABA ZAHARRAREN GORPUTZA GORDETZEN DUEN KUTXARI EUSTEN, SENIDEEK LAGUNDUTA, OLABERRIAN EGINDAKO OMENALDIAN.

1936AN FUSILATUA

Martzelo ETXEAN DA

MAURO SARAVIA

Testigantza baten lorratzari segika aurkitu dituzte frankistek 1936an hildako Martzelo Lasa olaberritarraren hezurrak, eta 83 urte geroago senideei eman dizkiete.

Miren eta Joxe Angel Munduatek historia ezagutzen zuten etxean kontatu zietelako: 1936ko abuztuaren 25ean frankistek beren osaba zahar Martzelo Lasa Zeberio 17 urteko Olaberriko gaztea hil zuten, eta Lizarrusti inguruan lurperatu toki ezezagun batean. Zortzi hamarkada geroago, liburu batean argitaraturiko datuei tiraka, Patxi Lakuntzaren testigantza aurkitu zuen Joxe Angelek.

Patxik 6 urte zituen, Lizarrustin aita eta lagun batekin arrantzan ari zela tiro hotsak entzun eta bi morroi ikusi zituenean hilotz bat lurperatzen, errepidetik gertu, harizti baten ondoan. Haurrari etxera joateko agindu zioten eta ihes egin zuen, baina hurrengo egunean itzuli eta adarrez estali zuen tokia animaliek gorpua ez eramateko.

FROGAK 47 KILOMETROAN

Duela bi urte, Aranzadiko teknikariak Lizarrustiko gainean elkartu ziren Joxe Angel eta Patxirekin. 86 urte zituen lekukoak, baina ederki gogoratzen zuen hilotza lurperaturik zegoen tokia: errepidearen 47 kilometroko pago baten oinean. 2017ko urriaren 12an lehen miaketa egin zuten eremu zabal batean eta ejertzitoak 1936an erabiltzen zuen munizioko bala-zorroak aurkitu zituzten puntarik gabe, erabilita alegia. Martzeloren arrastorik ez zuten aurkitu egun horretan, baina bai testigantzarekin bat egiten zuten zantzu garbiak.

2018ko irailaren 1ean, froga zehatzak eskuan zituztela, hondeamakina batekin ekin zioten lurra mugitzeari goizeko bederatzietan: eguerdirako lehen hezur batzuk agertu ziren. Hala, eguraldia lagun, hurrengo egunean atera zuten lurpetik gorpua, erakundeetako kargu publikoak eta senideak bertan zirela. Ezin zuten sinetsi ere egin, oso zaila baitzen hezurrak hor egotea.

Egun gutxira Patxi Lakuntza zendu zen, baina bere testigantzak askorako balio izan zuen: DNA frogek baieztatu zuten Lizarrustin agerturiko gorpuzkinak Martzelo Lasa Olaberriko bizilagunarenak zirela.

BERRIZ LURPERATZEA

Egiaztapen horrekin, ekitaldi bat antolatu zuten hildakoaren sorterrian uda honen hasieran, ekainaren 30ean. Olaberriko udaletxean, dozenaka lagunen aurrean Martzelo Lasaren hezurrak familiari eman zizkioten. Orain etxekoekin batera dago ehortzita, hilketa doilor hartatik 83 urte igaro direnean. ●

GORPUZKINAK OLABERRIAN

Ohorezko aurreskua dantzatu eta Agur Jaunak abestu zuten senide eta lagunek, hilkutxa aurrean zutela. Udaletxeko aretoa lepo bete zen.

HEZURRAK AZALERA

Patxi lakuntzak, 1936an haurra zela, ikusi zuen Martzelo Lasa nola lurperatzen zuten frankistek. Berak emandako informazioari esker, 2018ko irailean gorpuzkinak aurkitu zituzten lizarrustiko gainetik gertu, errepide ondoko pago handi baten oinean. Gorputza azalera ateratzeko unean, senideak eta hainbat erakunde publikotako ordezkariak izan ziren. Handik egun gutxira hil zen lakuntza, 86 urterekin, baina bere testigantzarekin zirkulua itxi ahal izan dute fusilatuaren ondorengoek: "Lortu dugu isiltasuna haustea, sukalde zokoetatik plazara ateratzea".

ARGITARA

Duela urtebete, 2018ko urrian, eman genuen kasuaren berri hedabide honetan, asteko argazkian. Martzelo Lasaren hezurrak aurkitzeak haren senideen "zauria osatzeko" balioko zuela genioen. Argazkian ikus daiteke Joxe Angel Munduate bere osabaren argazki bakarra eskuetan duela. Bada, hilabete batzuk geroago, beste argazki batek irudikatzen du historia honen azkenaurreko kapitulua: Martzelo Lasa etxean da.

Donostiako Aste Nagusia

EUSKARAREN ERABILERAK GORA EGIN DU, BAITA GAZTELANIARENAK ERE

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak 2003tik neurtzen du Gipuzkoako hiriburuko jai garrantzitsuenetako hizkuntza erabilera. Herritar boluntarioek behatzen dute ehundik gora jardueratako hizkuntza erabilera. Azken urteotan beherako joera eten eta gorantz egin du euskararen erabilerak. Gaztelaniak ere gora egin du azken bi urteotan. Euskararen erabileraren daturik kaskarrena 2007an jaso zen (%16,49) eta gaztelaniaren eta euskararen arteko alderik handiena 2010ean gertatu zen: euskarak %17,69 eta gaztelaniak %62,58.

Bagera elkartearen helburua hizkuntza azterketak euskararen erabilera bultzatzea da. Donostiak udan duen bisitari kopurua kontuan izanda, euskarari merezi duen tokia ematea eskatzen du elkarteak, hau da, gutxienez gaztelaniaren pareko agertzea eta hizkuntza gutxitua den neurrian lehentasunezko trataera izatea. Abuztuaren 10etik 17rako 109 jarduera aztertu dituzte, ahozko jarduna eta idatzizkoa ere bai. Ahozkoan hiru gauza hartu dituzte kontuan: aurkezpena –kontzertu baten aurkezpena adibidez–, jarduera beraren hizkuntza –musika taldeak zein hizkuntzatan abestu duen adibidez– eta dinamizatzailea (haur tailer bateko dinamizatzaileak erabili duen hizkuntza, adibidez).

Egitarau ofizialeko datuak daude hemen. Donostiako Piraten egitaraua ez da kontuan hartzen. Kontzertu batzuk salbu egitarau osoa euskaraz izaten du. ●

IDOIA ZABALETA / FOKU









- GAZTELANIAZ
- EUSKARAZ
- ELE BITAN
- BESTE HIZKUNTZA BATEAN

OHARRA

Gaztelaniaz: Gaztelaniaz edo gaztelaniari lehentasuna emanda. **Euskaraz:** euskaraz edo euskarari lehentasuna emanda. **Ele bitan:** euskaraz eta gaztelaniaz neurri berean. **Beste hizkuntza batean:** edo euskara edo gaztelaniaz gain beste hizkuntzaren bat erabili da.

HIZKUNTZA ERABILERA GUZTIRA



HAURREN EKINTZAK KENDUTA



DONOSTIA KULTURAK ANTOLATUTAKOAK



ERAGILEEK UDALAREN PROGRAMAN ANTOLATUTAKOAK



HIZKUNTZA ERABILERAREN GARAPENA



Iturria: *Hizkuntza erabileraren neurketa 2019, Donostiako Aste Nagusia, abuztuak 10-17 (Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkartea).*

ALFER BIAJEA

Urreliliaren lorean dauden osagai batzuk, piretrinak, intsektizida eraginkorrak dira.

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Landareen galbideak arrazoi ugari izan dezake. Garai batean hiru multzotan banatzen ziren: gaitzak, izurriteak eta belar edo landare "txarrak". Gaur egun landareen hondagarri guztiei izurrite deitzea da joera nagusia. Lehen izurritea esaten zitzaion intsektu, akaro, nematodo, hegazti, karraskari edo beste animalia kaltegarriren baten ugaritzeak sortutako ezbeharrari. Orain berdin da onddo, birus, har, txori, bakterio, akaro edo beldar; landareari kalte egiten dion guztiari izurritea deitzen zaio. Landarearen kaltea nola ikusten dugun da gakoa; ez du axola zein alorretako landareaz ari garen: basogintza, nekazaritza, abeltzaintza, lorazaintza... Kaltea gure helburuetara iristeko bidean huts egitea da. Landareen kalteak, dena dela, gure etekinen murrizketa dakar. Etekinen ikuspuntutik kalte guztiak bukoi bereko sagardoa dira: izurritea.

Laster egokitu beharko gara, baina oraindik, aurten behintzat, landareari kozkadizoa, eztenarekin ziztada edo antzeko erasoren bat egiten dionetara mugatuko dut izurria.

Baratze edo lorategi txikienean ere izurriaren kalteak murrizten saiatzen gara. Murrizketa horretarako zein baliabide erabiltzen ditugun, hortxe aldea. Zenbaitek pozoirik kaltegarriena erabiliko dute, kopla handirik gabe. Beste batzuk bere landareen kaltea sendatzeko inguruari ahalik eta kalte gutxien sortzen saiatzen dira. Landarearen galbidea konpontzeko horrelako konponbideen aldekoa naiz ni. Alfer-biajea litzateke gure landarearen arazoa zuzentzeko, gure osasunetik abiatuta ingurumen guztia okertu eta erretzea. Hilobira eraman duen mozkina hilobira eraman duenik ez dut ezagutu oraindik.

IRINA MALIKOVA / SHUTTERSTOCK

Kalteak konpondu bai, baina saia gaitezen naturaletik. Landareak erabili landareak sendatzeko. Adibidez, azaroaren lehenean, hilobiak urreliliz edo krisantemoz (*Chrysanthemum spp.*) josiko dira. Urreliliaren lorean dauden osagai batzuk estraktuetan ateratzen dira: piretrinak. Piretrinak intsektizida eraginkorrak dira. Itxuraz antigoaleko erremedio ezaguna da. XIX. mendean zorriak akabatzeko erabiltzen ziren. Arazoak sor ditzakete uretara iritsiz gero; izan ere, kaltegarriak dira arrain eta uretako beste animalia askorentzako. Landareak landareak sendatzeko. Laguna ere ez al da bada lagunaren sendabide onena? ●

BAZKARIA, JOLASAK, HERRI KIROLAK...

GAZTA TXAPELKETA HERRIKOIA
ARTISAUTZA

EKOIZPEN EKOLOGIKOKO UZTA KANPOTIK KUTSATUA DENEAN ZER EGIN?

GARAZI ZABALETA

Horixe da Lapurdiko Christophe Elissalde ekoizleak azken urteetan egiten duen galdera. Ordura arteko bere postari lana utzi eta etxeko lurretan laborantza biologikoan hasi zen 2016an, nekazaritzan urtebeteko formazio praktikak egin eta gero. "Ezpeletako piperra ekoizten dut batez ere, eta ondoan zenbait barazki ere bai. Hastapenetik argi nuen laborantza biologikoan ekoitzi nahi nuela", dio laborariak. Espero gabeko zailtasunarekin egin du topo urteotan ekoizleak, baina: ekoizpenaren zati handi bat kutsatua dauka berak inolako pestizida edo kimikorik erabili ez arren. Pipergile honena adibide bat besterik ez da, gauza bera gertatzen baitzaie ekologikoan diharduten nekazari askori beste barazkien ekoizpenean.

EKOLOGIKOAREN ALDEKO APUSTUA

7.000 metro koadro inguruko lursailean ekoizten du nekazariak piperra, eta 3.000 metro koadrokoan barazkiak. Guztia egiten du eredu ekologikoan: "Pentsatzen dut hori dela onena enetzat, familiarentzat, bezeroentzat, lurrarentzat eta ingurumenarentzat". Piperrarekin piperrautsa egiten du, eta gehiena enpresa frantses bati saltzen dio. Bio saltokietan eta zuzenean ere saltzen du, baina gutxiago.

Piperren ekoizpen ekologikoan aritzeak baditu zailtasunak zenbait arazori aurre egiterakoan: "Kukusoak dira gure lehen arazoak, horren aurka egiteko produktu naturalak erabili behar ditugu, pestizidarik ez baitugu erabiltzen". Antzekoa gertatzen zaie harrekin ere, eta ongarri kimikorik eta karerik ere ez dute erabiltzen. "Gainera, biologikoan lan asko dugu belar kentzen, eskuz edo tresnekin, herbizidarik gabe", gehitu du.

ARAZOAREN JATORRIA ZIURTATZEA EZINEZKO

2016an piperrauts produkzioaren zati handiena bezero bati saldu zion, eta hark egindako analisietan ikusi zuten produktua kutsatuta zegoela. "Emaitzek zioten hiru molekulaz kutsatuta zegoela, eta hiru horietatik bat kantitate handian, beraz, konbentzionalean ere ezin nuen saldu". 185 kilo piperrauts bota egin behar izan zituen lehen urte hartan. Bigarren urtean beste pentze batean egin zuen piperra, eta ez zuen inolako kutsadura arazorik izan.

Baina iaz, azken pentze berean ekoiztean, arazoa berriz agertu zen. Ekoitzi zituen piperrautsetatik hiru lagin analizatu eta horietatik bi kutsatuak zeuden lau molekulaz, eta bestea molekula batez. Auzokoen edota ingurukoen lurretatik etor liteke kutsadura, baina hori ezin da ziur jakin: "Haizearekin hamar kilometro urrunago joan daitezke pestizidak, eta zentzuaren arabera, posible da ondo-ondoan dagoen pentzea ez kutsatzea eta kilometroak urrunago dagoena bai". Arazoa nondik datorren jakin gabe, zaila izanen da soluzioa bilatzea. Eta Elissaldek dioen bezala, "zoritxarrez, ezin ditugu auzokoen eta ingurukoen praktikak aldatu". ●

ASTEKO PORTADA HAUTATUA

1998ko apirilaren 5a

KOLDO IZAGIRRE

Hogei urte geroago, bere aitzineko lehendariek ez bezala egin du hitz Emmanuel Macronek 2019 honetan, Fresnes higuingarria bisitatu ondoan. Ona dateke lehendakari bati beste lehendakari baten esana oposatzea.

Macron lehendakariak: Gure presondegiak berrizkaturaren atariak dira.

Mouesca lehendakariak: Ados nauzu.

Macron lehendakariak: Gure sistemak batekoz bestera funtzionatzen du.

Mouesca lehendakariak: Egia da.

Macron lehendakariak: Duintasuna itzuli behar zaie atxilotuei.

Mouesca lehendakariak: Arrazoia duzu horretan ere.

Macron lehendakariak: Zigor alternatiboak ezarri behar zaizkiei delitu txipiak egiten dituztenei.

Mouesca lehendakariak: Jakizu magistratu jaun-andereek arnasa hartu bezala jaurtitzen dutela jendea giltzapera.

Macron lehendakariak: Lehenbailehen antolatu behar dira urte betez goiti zigortuentzako lekuak.

Mouesca lehendakariak: Baina egun erraz kondenatzen zaituzte bi urtetara. Pertsonei kalterik egin gabeko gaizkile apalak botako dituzu ziegetara, bizitzatik, familiatik eta lanetik etenda. Ez dator bat delitu txipiez esan duzunarekin.

Macron lehendakariak: Mila eta bostehun lanpostu berri sortuko ditugu bergizarteratzea azkartzeko.

Mouesca lehendakariak: Zerbitzu hori desblokeatzeko, zuk diozunaren halako bi beharko lirateke. Berean iraunen du desgizarteratzeak.

Macron lehendakariak: Presondegi berriak eraiki behar ditugu, zazpi mila atxilotu hartzeko lekua ukanen dugu.

Muesca lehendakariak: Presondegi gehiagok atxilotu gehiago ekarriko du. Tresna barbaroa duzu presondegia. Ez du deus onik ekartzeko balio. Zure diskurtsoa zintzoa da, baina zure erabakiak makurrak dira.

Hamazazpi urtez bere ziegan, bost urtez Nazioarteko Presondegien Behategian, lau urtez —oraingoz— Eskual Herriko Giza Eskubideen Defentsarako Batzordean lehendakari, Gabi Muesca baionarra. ●

ARGIAK 100 URTE

HERRIA ALDIZKARIA

75 urte euskal kazetaritzaren lubakian

Menane Oxandabaratz, *Herria* aldizkariko erredaktore bakarra lan eta lan.

MIREN OSA GALDONA

Zeruko *Argia*ren sorrera urtea (1919) kontuan hartuta bete ditu aurten ARGIAk 100 urte. Zeruko izaeratik 1980an deslotu zen egungo ARGIA, baina gaurko lantaldeak dudarik gabe baliatu nahi izan du urte biribila bizitzeko aukera edo "aitzakia", astekariaren jaiotza eta birjaiotza urteen eztabaida teologikoetan katramilatu gabe.

Baina bakoitzari berea. Izan zen *Zeruko Argia* baino lehenagokorik, euskarazko kazetaritzan: *Eskualduna*. Eta bada 39. urtea bete duen ARGIA baino aldizkari zaharragorik: 75 urte biribil bete ditu aurten *Herria*k, Baionan bi astean behin argitaratzen den aldizkariak.

Honela azaldu du *Eskualduna* eta *Herria*ren arteko lotura Peio Jorajuriak, *Herria*ko kazetari ohiak. "Gaur *Herria*n ari garenontzat, bi astekari horiek oso ezberdinak direla iruditzen zaigu, nahiz bigarrenak lehenaren segida hartu izan zuen". Louis Etcheverry politikari kontserbadoreak sortu zuen *Eskualduna* aldizkaria 1887an Baionan, bere ideiak plazaratu eta, neurri handi batean, ezkerraren kontra egiteko. "Aldizkariak euskararen defentsa aldarrikatzen bazuen ere, aldizkaria bera elebiduna zen", dio Jorajuriak. Aldiz, Frantziako botere publikoek itxi egin zuten hedabidea 1944an, gerra sasoian alemaniar nazieekin kolaboratzea egotzita. Hainbat irakurle euskarazko edukirik gabe geratu zen Ipar Euskal Herrian, eta hutsunea betetzeko asmoz, gazeta bat sortzeko taldea eratu zen urte berean.

Piarres Lafitteren gidaritzapean, *Eskualduna*ren ildotik aldentzeko asmoa zuen proiektua eratu zuten: toki gehiago eman zitzaion bai euskarari baita euskaltzaletasunari ere. Bi aldizkarien arteko transmisioa nahiko "ongi" egin zela dio Jorajuriak; adibidez, hainbat kolaboratzailek *Herria*n jarraitu baitzuten. Ekaitza etxe barruan lehertu zen, ordea: Piarres Lafitte apaiz ezkertiarra zen, Espainiako gerra zibilean euskal errefuxiatuei ongi etorria egiteagatik ezaguna. Kontserbadoreek ez zuten askorik maite, eta eragina izan zuen irakurle kopuruan. Aitzitik, Aljeriako gerra garaian harpidedun kopuruak gora egin zuela azaldu du Jorajuriak, "kasik 10.000ra iristeraino".

Herria eraldatzen joan da denborarekin. Jorajuria erredaktore buru izan zen urte luzez, 2006an erretreta hartu zuen arte. "Nekezia ekonomikoak" izan arren, *Herria* pixkanaka aurrera darraien proiektua dela uste du Jorajuriak. "Uste dut orduko kristau-demokrata izpiritua galdu duela, eta oso irekia den astekaria dela". Jarrai dezazue lanean urte luzez, gure mendeurrena amaitzen ari baita, eta gustura ospatuko baitugu urte batzuetara zuena. ●

"ELKARGOA ETA EUSKARA INSTITUZIOETAN" MAHAI-INGURUA

Edalontzi beteak eta hutsak mahaiaren bueltan

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Denok izaten ditugu egunak. Edalontzia erdi betea ikusten dugun egunak batzuetan, erdi hutsa ikusten dugunak bestetan. Arazoa gaur edo bihar bera izanik ere, zenbaitetan konponbidea bilatzen diogu, lortuko dugula iruditzen zaigu, eta beste batzuetan berriz dena iluntzen zaigu. Baina gaur ez dut oso egun filosofikoa eta nahiago dut lortu nahiko nukeen helburua ahaztu gabe, testuinguruari eta pauso bakoitzari erreparatzea. Agian Mintzalasai Elkartearekin batera ARGIAk Baionan irailaren 27rako antolatua duen mahai-inguruak lagunduko dit kokatzen.

Euskara da gaia. Euskara Ipar Euskal Herrian, hain zuzen. Hizlariak Jean-Claude Iriart, Marie Andrée Ouret eta Eneko Bidegain. Euskararen egoera aztergai da gure zazpi lurraldeetan, baina Iparraldean badakigu gure hizkuntza ez dela ofiziala ezta koofiziala ere. Beraz, egoera are bereziagoa da. Baina aldi berean bizirik dirauen hizkuntza da jende gutxi batzuen ahaleginari esker, eta baliabide gutxirekin azken 50 urteotan eman dira pausoak hiru lurralde hauetan. Orain garai berri batean sartu dela dirudi, Euskal Elkargoa sortu ondotik.

GALDERAK ETA ZALANTZAK ASKO

Nola iritsi da euskara Iparraldean egungo egoerara? Eta Elkargoa sortu ondoren, nola kokatzen da egoera berrian euskara? Instituzionalizatzeak ez ote du ahulduko herri ekimena, militantzia? Euskal Herri osoa, Iparraldea barne, aro politiko berri batean dago. Euskara erakundeen eskutik biziko al da? Zein izango da Euskal Elkargoaren jarrera euskararekiko?

Bada Elkargoak hizkuntzaren gaian egingo duen lana defendatzen duenik, baita honen inguruan zalantzak dituen eta kritikoagoa den sektorerik ere. Iritzi ezberdin horiek biltzeko asmoz elkartuko dituzte mahaiaren bueltan Jean-Claude Iriart Baionako hautetsia eta Euskal Elkargoko kidea, Marie Andrée Ouret Biga Bai guraso elkartean aritzen dena eskola publikoan, eta Eneko Bidegain Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta gai honetan aditua, sarri kritiko izan dena erakunde berriak euskararekiko izan dezakeen jarrerarekin (ikus *Gakoak* aldizkarian idatzi zuen artikulua).

Interesgarria, ziur, piztuko den eztabaida; eta emango dizkiote entzuleari gakoak datozen mugimenduak ulertzeko eta ezagutzeko. Hori guztia irailaren 27an, ostiralez, arratsaldeko 19:00etan Baiona Tipiko Euskal Erakustokian. ●

ARGIAren Mendeurren Festan lagunduko?

Urriaren 12an Donostian egingo dugu ARGIAren 100 urteak ospatzeko festa nagusia. *Deskoloniza gaitezen!* du lema eta xehetasunak astez aste azalduko dizkizuegu astekarian (egitarauaren orria ikus dezakezu astero).

Jai parte-hartzaileak ditugu maite, eta ateak zabal zabalik izatea Argia Jendea sukalderaino sartzeko. Txosna atzean turnoren bat egingo zenuke? Umeen esku-lan txokoan laguntzen aritzeko prest?

Dagoeneko ari da Argia Jendea lanerako izena ematen. Zu ere prest bazara, idatzi helbide honetara:

argiak100urte@argia.eus

AZOKA
AZOKA.ARGIA.EUS

NOLA DA
MUSUTRUK?

Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu *Argia Jendea*-rentzat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira. Ondasunak banatu ditzagun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da.

ALBAOLARAKO
SARRERAK

MUSUTRUK JARRIKO DEN EGUNA:
Irailak 12, osteguna, 10:00etan

“Kulturak laguntzen digu unibertsitatean kritikoak izaten, baita autokritikoak izaten ere”

ANTONIO CASADO DA ROCHA
EHU-REN GIPUZKOAKO CAMPUSEKO HEDAKUNTZA ZUZENDARIA

Duela bi urte, Antonio Casado da Rocha filosofo, idazle eta EHUko irakasleak Gipuzkoako campuseko kultura-jardueren ardura hartu zuen. Geroztik, hainbat aldaketa izan dira eta ikasturte honetan “jauzi handia” egingo dutela azaldu du. “Sorkuntza eta jakintza-eremuak harremanetan jarri nahi ditugu”, adierazi digu.

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA DANI BLANCO

Duela bi urte izendatu zintuzten EHUren Gipuzkoako Campuseko Hedakuntza zuzendari. Zein dira ardura horren funtzioak unibertsitate barruan?

Unibertsitatea irudikatzen denean, irakaskuntza eta ikerketa aipatzen dira ia beti. Baina unibertsitateek badute hirugarren funtzio bat, batzuetan ahazten dena: sortzen eta transmititzen den ezagutza hori gizarteratzea, laborategitik edo gelatik kanpo zabaltzea. “Eman ta zabal zazu” gure leloan agertzen den zabaltze hori, hain zuzen. Ez diot utzi irakaskuntzan eta ikerkuntzan lan egiteari, baina gelaz eta laborategiaz harago doan unibertsitate kultura hori gizarte osoarekin uztartzea da nire helburua. EHUkultura programa diseinatu eta aurrera eramaten dugu, Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko lankideekin batera. Horrez gain, Agustin Erkizia errektoreordearen taldean dihardut, campuseko jarduera eta baliabide batzuk kudeatuz: adibidez, Ignacio María Barriola zentroa eta Txillardegi erakusketa aretoa.

Iritsi zinenean, zer panorama aurkitu zenuen?

Anitza zen eta da: 10.000 lagun gara campus honetan lan egin, ikertu eta ikasten dugunak. Gizartearen ispilua gara eta denetik dugu, baina gaitasun handiak daude, askotan oharkabean. Talentu kontzentraziorik handienetakoa Gipuzkoa osoan, baina oso sakabanatuta eta atomizatuta, nor bere txokoan. Hiru ikasletik, bik euskaraz ikasten dute, baina duela gutxi arte, tradizioz edo inertziaz, kultura jarduera gehienak gaztelaniaz egiten ziren. Hori aldatzen ari gara, apurka-apurka.

Zein dira berritasunak?

Aurten jauzi handia egingo dugu, edonori irekiak diren kultur ikastaro bereziak antolatuz: Andoni Tolosa, Gari Garaialde, Pep Ribadeneyra eta Pello Otxoteko fitxatu ditugu kantugintza, argazkilaritza, konpostagintza eta poesia tailerrak euskaraz emateko, astean behin, arratsaldez. Mikel Laboa Katedrarekin elkarlanean, Pettiren eta MICEren emanaldiak eta solasaldiak izango ditugu euskal musikaren inguruan; Mintzola Fundazioaren eskutik, bertso saioak eta ahozko sorkuntzan laguntzeko elkarketak; euskal pentsamenduaren eta Joxe Azurmendiren lanaren inguruko kongresu bat abenduan...

Horrez gain, Carlos Santamaria Zentroan dagoen erakusketa aretoari berebiziko garrantzia eman diogu: unibertsitateko artistei eta ingurukoei, batez ere amateurrak direnei, dohainik lagatzen diegu. Bi urteotan hogei erakusketa baino gehiago egin eta gero, aurreikusten ez genuen arrakasta bihurtu zaigula uste dut. Beste gauza batzuk, funtzionatzen ez zutenak, kendu ditugu; adibidez, zinema ziklo orokorrak antolatzeak ez du zentzu askorik zinemaz beterik dagoen hiri honetan. Baina Kresalarekin eta Tabakalerarekin hitzarmenak sinatu ditugu, beren emanaldietan gure ikasleek deskontuak izan ditzaten. Beste aldaketa bat dugu estrategian: lankidetzak egin nahi ditugu lurraldean dauden kultura eta hizkuntza komunitate eta agente ezberdinekin. Aurten elkarlana abiatu dugu Alliance Française-rekin eta datorren urtean Italia Txiki elkartearekin jarraituko dugu. Gainera, Elias Querejeta Zine Eskola atxikitu zaio campusari, nazioarteko maila duen ikastegi berritzaile hori unibertsitate publikoan txertatuz.

“Praktika komunitatea” kontzeptua erabili duzu campuseko zenbait esperientzia deskribatzeko. Azalduko zenuke zer den hori?

Ideia oso sinplea da: praktika komunitatea talde bat da, non kideek zaletasun, ofizio edo jardun bat partekatzen duten; taldekideak aldiro elkartzen dira modu informalean jardun horretan elkarrekin

eta elkarrengandik ikasteko. Arazo edo grina zehatz bati erantzuna emateko auzolanak dira, eta gurean kultura horrelako zerbait delakoan nago: auzolana.

Prozesuei eman diezue garrantzia unibertsitateko kultur-bizitza dinamizatzeko. Zein da diferentzia ikuspegi horren eta ohiko kultur taldeen artean?

Helburua da osoko formakuntza, hezkuntza integrala bultzatzea, eta berau hiritar guztien esku jartzea. Unibertsitatea ez dago kultura-industriaren menpe, baina kultura-industriak unibertsitatea behar du: Tolkien Oxfordek sortu zuen, ez Hollywoodek. Gure jarduera gehienak doan dira, nahiko xumeak, ez ditugu ekitaldi jendetsuak antolatzen. Helburua da elkarrekin ondo pasatzea eta kulturaz gozatzea; unibertsitatean ez dadin dena e-maila eta pantaila izan. Campusean garena eta egiten duguna ezagutzea, eta gure arteko harremanak piztea da helburua. Izan ere, unibertsitate garaian egiten diren harremanak eta esperientziak bizitza osorako altxorra izaten dira.

Zer dute mota horretako harremanek ikasgeletan edo mintegietan ematen direnek ez dutena?

Filosofoa naiz, beraz galdera eginez erantzungo dizut: zenbat ideia, zenbat enpresa jaio dira campuseko kafetegietan? Zenbat komiki, banda eta fanzine? Irlandan ikasi nuen unibertsitatean, Cork-en: han ez zegoen pub batean bukatzen ez zen mintegirik. Baina gaur egun gero eta denbora gutxiago pasatzen dugu campuseko kafetegietan; sozializatzeko esparruak aldatu dira. Bada, bestelakoak badira, bilatu eta abordatu beharko ditugu.

Ikasleek unibertsitatearekiko senti dezaketen duten lotura-faltarentzat antidotoa izan daiteke kultura?

Lotura-falta hori egon badago, baina ez da ikasleen errua. Neurri batean, "ametsen eraiste neurtua" izatea naturala da edozein ikasleren hezkuntza prozesuan. Hau ez da armada edo futbol talde bat, ikasle zein irakasleen elkargunea baizik. Unibertsitatearena da metafora geografiko bat: etxe multzo bat, hiri txiki bat, eta gureak auzo asko ditu; gatazka edo etsipen puntu bat ekidin ezina da. Baina, agian horregatik, ziur aski ez dago gure inguruan unibertsitate publikoa baino demokratikoagoa den erakunderik. Kargu guztiak guk geuk hautatzen ditugu, eta agente guztiekin adostu behar da guztia. Horretan datza bere autonomia, baita bere moteltasuna ere. Unibertsitate handi bat ez da inoiz perfektua izango, baina

IÑAKIBEREZIARTUA
ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
✆ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu
SIGACUS
✆ 943 453 588 · www.sigacus.com

MARCOS
okindegia
Benetako
antzinako ogia
✆ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

kulturarik ez badauka ez da funtsezko kritika egiteko gai. Kulturak laguntzen digu unibertsitatean kritikoak izaten, baina unibertsitatea guk egiten dugu; beraz, autokritikoak ere izan behar dugu.

Gipuzkoako Campuseko jarduerei dagokienez, kultura zentzu zabalean ulertzen duzuela dirudi: jarduera artistikoak bai, baina eguneroko bizitzarekin lotuagoak dauden tailerrak ere badaude, konpostatzearen ingurukoa adibidez.
Ez dut goiko eta beheko kultura bereizketan sinesten. Nire ustez graduko eskaintzan sartzen ez diren jakintza baliagarriak, zeharkakoak direnak, babestu behar ditugu. Esate baterako, giza eskubideetan oinarritutako kultura demokratikoa, eztabaidetan parte hartzeko gaitasuna, kultura da. Zientzia kultura, gure mundua ulertzeko gakoa izateaz gain, kultura da. Ekologia eta jasangarritasunaren kontuak ere bai; campus guztietan baratzea ikusiko dugulakoan nago; azken finean, nekazaritza ere gure kultura da.

Ohiko festibalen aldean, jendea parte hartzera animatu nahi duten ekitaldiak indartu dituzuela dirudi.
Iruditzen zait festibaletan badagoela zerbait garrantzitsua: kultura ospakizuna da, festarekin lotuta dago, errituala eta errepikapena maite ditu. Baina festa batean lagunak ez badituzu egiten, akabo! Horregatik festibal txikien kultura interesatzen zait gehien, eta guk geuk antolatzen ditugu batzuk, Donostia Kulturarekin lankidetzan. Saiatzen gara festibal horien bitartez campusean eta bere inguruan dagoen jendea taularatzen.

Unibertsitateko ikasleek badute gauzak beren kasa egiteko grina, nahiz eta kontrako joera ere badagoen: kultura kontsumitzea, ez sortzea. Oreka bat erdietsi behar dugu: baliabideak eskura jarri, izaera publikoa mantenduz; lagundu bai, baina denei berdin, eta dena eginda eman gabe.

Errektoreordetzak sortu berri den antzerki elkartearen esku utzi du campuseko antzerkiaren martxa.
Kultur jarduerak dinamizatzeko kolaboratzaile berdinekin lan egin izan ohi dugu, urtez urte errepikatzen zirenak, eta aurten berritu behar izan ditugu, eredua aldatuz. Orain arte goitik-beherakoa zen: errektoreordetzak zuzendari artistikoa hautatzen zuen, eta horrek gainontzeko guztia erabakitzen zuen, zerbitzua nolabait kanpora ateraz. Baina campus barruan badago antzerkian eskarmentua eta proposamenak dituen jendea: gure ikasleak, irakasle-ikertzaileak eta langileak. Zergatik ez eman haiei erabakitze eskumena? Hori egin dugu, unibertsitate onenen ereduari jarraituz, non elkarteen bitartez unibertsitate bizitza kudeatzen duten. EHUn orkestra, abesbatza, danborrada, eta eztabaidarako elkarteak bazeuden, eta orain beste bat dago: Unibertsitate Eszena Arteen (UNEA) elkartea, Gipuzkoako campusean sortu berri duguna.

Beste ezaugarri esanguratsu bat: errotazioa bultzatuko duzue programa bakoitzaren gidaritzan. Irakasle berriek jende berria erakartzen dute?
Hala izaten da, irakasleak gure traktoreak izan dira beti. Kulturan ere, mentoreak behar ditugu, beren eskarmentua eta pasioa partekatzen dituen jendea. Baina paisaia ahalik eta zabalena izan dadin, sormen lurra agortu ez dadin, ikastaro bakoitza behin bakarrik errepikatzen da, eta kito. Aukera aprobetxatu behar! Errotazioaren bitartez aniztasuna babestu eta inertzia ekiditen dugu, ideia berriei tokia eginez. Bide batez, horrek ere lagunduko digu genero eta estiloen arteko oreka bilatzen. Emakume sortzaileak gehiago ikusarazi behar ditugu.

Ikastaro guztiei dimentsio praktikoa ematea ere bada ardatzetako bat.
Hori izan da beste buruhauste bat: zer da kultur ikastaro bat? Nola bereizten da unibertsitatean egiten diren besteekiko? Atera dugun konklusioa da dimentsio praktiko hori ezinbestekoa dela eta horregatik ikastaro bakoitzean komunitatearekin partekatu dezakegun emaitza bat elkarrekin sortu nahiko genuke: dela erakusketa bat, konpostagune bat, bideo edo testu laburren bilduma bat, musika edo antzerki emanaldi bat...

Kultura zer den ez dugu aldez aurretik erabaki nahi, eta bestalde ez dugu izan nahi baliabideak banatzeko makinaria bat, non programa edo kartel bat osatzen den eskatzaileen artean finantziazioa esleituz. Bultzatu nahi duguna da harreman horizontalago bat, non protagonistak diren praktika komunitateak: kultura eta zaletasunak bizi eta partekatzen dituzten pertsonak. ●

Jostorratzak baino lehen

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Izturitze duela 21.000-29.000 urte. Gravettiar aroan Izturitzeko kobazuloan bizi ziren gizakiek suharrizko tresna asko utzi zituzten. Horietatik, ehunka batzuk Noailleseko gubilak dira, hala deituak lehenengoz Frantziako hego-mendebaldeko kobazulo horretan aurkitu zituztelako. Kobazuloko IV. mailan aurkitutako Noailleseko gubilak gehienez ere 3 cm luze eta 2 cm zabal dira, oso estandarizatuak zeuden eta, punta zorrotzari esker, zeregin espezializatuetarako erabiltzen zituzten. Baina, tresna txiki horiek sakon ikertu baino lehen, EHUko ikerlariek ez zekiten zehazki zertarako erabiltzen zituzten.

Aitor Calvo, Unai Perales, Maite García-Rojas, Christian Normand eta Alvaro Arrizabalagak osatzen duten ikerketa taldeak gubil bilduma horren azterketa teknologikoa, tipometrikoa, morfotipologikoa eta, bereziki, funtzionala egin du –azterketa funtzionala egiteko programa esperimental bat prestatu zuten ikerlariek–. Emaitzen berri *Journal of Archaeological Science: Reports* aldizkarian eman zuten uda hasieran.

Ikerlariek ondorioztatu dute Noailleseko gubilak material bigunak –esaterako, animalien larruazalez eginiko jantziak– zulatzeko erabiltzen zituztela; josteko, alegia. Eta hipotesi horrek badu heldulekurik Europako garai bereko beste aztarnategi batzuetan aurkitutako objektuetan. Sunghir (Errusia) eta Candide zein Ostuni (Italia) aztarnategietako hilobietan ehunka ale apaingarri topatu dituzte, jatorriz txanoetan, berokietan edo galtzetan josita zeudenak.

EHU

EHU-KO IKERLARI TALDE BATEK IZTURITZEKO GUBILAK SAKON AZTERTU DITU, BESTEAK BESTE, PROGRAMA ESPERIMENTAL BATEN BIDEZ. SUHARRIZKO TRESNOK JOSTEKO ERABILTZEN ZITUZTELA ONDORIOZTATU DUTE.

Lehenengo jostorratzak –irizpide morfologikoaren arabera, behintzat– Gravettiar aldia amaituta sortu eta erabili zituzten, Solutre aldian (duela 15.000-21.000 urte gutxi gorabehera). Hezurrezkoak izan ohi ziren eta, geroago, duela 7.500 urte inguru, metalezkoak egiten hasi ziren. Baina, EHUko ikerlariaren arabera, jostorratzak baino lehen ere, baziren josteko tresnak. ●

EGIPTOKO ANTZINAROKO MINISTERIOA

Janaria nola gorde duela 3.000 urte

Alexandriatik 75 kilometrora dagoen Tell Abqain aztarnategian, Ramses II.aren garaian (K.a. 1279-1213) eraikitako gotorlekuaren arrastoen artean, zerealak eta beste jaki batzuk kontserbatzeko bi biltegi aurkitu dituzte. Erlauntz formako geletan, besteak beste, buztinezko labeak aurkitu dituzte. Adituen ustez, aurkikuntza garrantzitsua da hori, bertan zerealak erretzen zituztelako, intsektuak garbitu, hezetasuna kendu eta, hala, jakiak egoera onean kontserbatzeko.

Labeez gain beste objektu batzuk ere aurkitu dituzte, esaterako, ezkerreko argazkian ageri dena eta antzeko beste amuleto batzuk. Alegia, antzinako egiptoarrek amuletoak jartzen zituztela, Horusen begiak ere janaria babestu zezan. ●

LIBURUA

Adiskide bat nuen



ADISKIDEAK GARA?
ANABEL FERNÁNDEZ REY
ILUSTRAZIOA: ANABEL FERNÁNDEZ REY
ITZULPENA: MANU LÓPEZ GASENI
PAMIELA, 2019

XABIER ETXANIZ ERLE

Adiskidetasunari buruzko liburua dugu Anabel Fernández Reyk idatzi eta ilustratutako hau. Istorio sinplea da, haur eta hartz handi baten arteko harremanari buruzko istorioa. Egileak, mezua hobe helarazteko, jolastu ahal izateko, apropos erabili du animalia pertsonifikatuta bi gizaki jarri beharrean.

Haurrak laguntza eskatzen dio behin eta berriro hartzari. "Ez dut barazkirik jan nahi. Lagunduko didazu zuk, tripontzi horrek?", "Ezin naiz bakarrik orraztu. Zuk, goitik hobeto ikusten duzunez, lagunduko didazu?" edo "Oso azkar ibili nahi dut. Zuk, bultza egiten dakizunez, lagunduko didazu?", eta horrela ikusi ahal dugu haurra irribarrez, nahi duena egiten, eta ondoan hartz handia serio, haurrak esandakoak, eskatutakoak, egiten. Irudi sinple eta pastel kolorekoak, suabeak, dira. Detaileetan eta paisaian edo inguruko kontuetan arreta desbideratu gabe, haurraren eta hartzaren arteko ekintzan zentratzen da eta horretara garamatza irakurle-ikusle gisa.

Bi protagonisten arteko harremana, baina, aldatu egiten da une batean. Haurrak bere jostailu guztiak barreiaturik dituelarik hartza jasotzen ari denean aurpegi serio baino serioagoarekin. Hurrengo irudian, bi orriak betetzen dituen hitzik gabekoan, hartza pentsatzen azaltzen zaigu, eta handik aurrera bera izango da bere "adiskideari" laguntza eskatuko diona behin eta berriro.

Azkenean, adiskidetasuna bien arteko harremana dela ikusten da, biek eman behar dutela laguna pozik egoteko, bien parte-hartzea behar dela eta orduan bai, orduan liburuaren izenburuan ageri den galdera ikurrak ez du zentzurik izango.

Istorio sinplea dela aipatu dugu, irudien erabileran, testuan eta kontatzen duen argumentuan, baina sinplea izanda ere badu bere mezu sakona. Haurrek erraz harrapatuko dutena istorioaren nondik norakoagatik eta baita irudietan protagonista bien baitan ematen diren aldaketengatik; are gehiago, mezua hobe ulertzeko nahitaezkoa da hartz handiaren eta mutikoaren aurpegiak aztertzea, egiten dituzten keinuak, transmititzen dituzten mezuak aztertzea. Egileak, ederki lortzen baitu, horien bidez, adiskidetasunari buruzko mezua helaraztea. Eta horretarako nahikoa da liburuaren azalean ageri den ilustrazioa eta amaierakoa konparatzea. ●



KONTZERTUA

Beethovenen preludioa

"BEETHOVENEN PIANO ETA ORKESTRARAKO KONTZERTUAK" JUANJO MENA ETA JAVIER PERIANESEN ESKUTIK.

LONDON PHILHARMONIC ORCHESTRA
ZUZENDARIA: JUANJO MENA
BAKARLARIA: JAVIER PERIANES (PIANOA-JOTZAILEA)

NOIZ: abuztuaren 30 eta 31n.
NON: Kursaal Auditorioan.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Datorren urtean Beethovenen jaiotzaren 250. urteurrena ospatuko da, eta beraz, errespetu osoz esanda, kokoteraino bukatuko dugu Bonneko maisuaz. Ez da urtea iritsi eta Donostiako Musika Hamabostaldia efemeride honetaz gogoratu da eta konpositorearen piano eta orkestrarako kontzertuen integrala eskaini digu. Halaxe, gosegarri gisa.

Platerkada honentzako osagarri ezin hobeak izan genituen: London Philharmonic Orchestra doi-doia, gure Juanjo Mena zuzendaria, oso kanporakoia, beti bezala, eta bakarlari fina, Javier Perianes pianista huelvarra hain zuzen ere. Gauzak horrela, bi kontzertu onak izan genituen, perfektuak esango nuke.

London Philharmonic taldearen ezaugarri pare bat azpimarratu beharko banitu, soinuaren gardentasuna eta esanekotasuna aipatuko nituzke. Soka ederra du orkestra honek, haize garbia eta musikari pasionatuak. Horrez gain, zintzotasun osoz jarraitzen zituzten Menaren agindu guztiak; zuzendariaren keinu edo ñabardura bakoitza primeran azaltzen zuten.

Baina benetako protagonista Perianes piano-jolea izan zen. Txundituta utzi zituen entzule guztiak bere fintasunarekin. Oso musikari errefinatua da, soinu zinez polita ateratzen du pianotik eta *pianissimi* ederrak ateratzen ditu instrumentutik. Aitzakiaren bat aipatzekotan, agian horixe bera izango litzateke, gehiegi erabiltzen duela *pianissimoa*. Soinu gehiago beharko luke une batzuetan eta piano eta orkestrarako kontzertu handia dena ganbera musika pieza bat bihurtzen du.

Bi saiotan banatu zituzten bost kontzertuak. Lehenengo saioan 2., 3. eta 4. kontzertuak jo zituzten. Dudarik gabe, laugarrena da kontzertu ederrena, eta pieza honetan zabaldu zuen Perianesek bere irudimen musikala. Elkarrizketa dotoreak egin zituen orkestrarekin, *Andante con moto* bigarren mugimendua bikaina egin zuen eta adorez aritu zen *Rondo vivace* azkeneko zatian.

Bigarren egunean muturreko kontzertuak interpretatu zituen. Alde batetik, hain klasiko eta gardena den 1. Kontzertua, do minorrekoa, garbi-garbia, eta, bestetik, *Emperador* izeneko 5. Kontzertua, erromantikoena, birtuosistikoena eta adoretsuena. Interpretazio ikusgarri eta karakterekoa egin zuen Perianesek, bere ukitu delikatu eta gardena utzi gabe. Publikoa txoratuta geratu zen. ●

Zarata ona

DABI PIEDRA
PEDRO ALONSO (METAL JOURNAL)

SU TA GAR-EN KONTZERTUA

NOIZ: abuztuaren 17an.
NON: Abandoibarra, Bilbo.

Hiru hamarkada eta ehunka kontzerturen ondoren, Su Ta Gar taldeak betiko indarrari eusten diola ikusi ahal izan dugu 30. urteurreneko biran. Bilboko Aste Nagusian jo zuen Eibarko laukoteak bira horretako azken kontzertua, Abandoibarrako agertokian. Musika eta oroitzapenak uztartu zituen emanaldiak, izan ere, pantaila handi batean, argazki zaharrak eta Su Ta Garren bideoklip ezagunenak proiektatu zituzten.

Ordu-orduan agertu ziren Su Ta Garreko kideak oholtza gainera, eta denborarik galdu gabe ekin zioten kontzertuari, publikoa saltoka jarri zuten doinuekin. Batez ere hasieran, euren ibilbideko pieza mitikoak jo zituzten, etenik gabe, su eta gar, izenari men eginez. Une batez, doinu lasaiagoetara jo zuten, argazki zaharrak proiektatzen hasi zirenean, baina laster segitu zuten *kaña* ematen.

Garai bateko jai eta gaztetxeetako beterano asko zegoen publikoan, euren gaztaroko soinu banda izan zitekeenaz gozatzen. Baina Su Ta Gar sortu zenean jaio gabe zeuden gaztetxoak ere agertu ziren Abandoibarran. Kontzertuak goia jo zuen *Jo ta ke* eta *Libre* kantuak elkarren atzetik jo zituztenean. Aitor Gorosabelek mikrofonoa jendeari zuzendu zion, eta lehenengo ilaretakoek gustura kantatu zuten. Egundoko zarata zen hura, zarata ona.

Laukoteak atseden labur bat egin zuen, pantailan *Arbasoen mendekua* bideoklipa jarri zuten bitartean. Kontzertuaren bigarren zatia hetereogeneoa izan zen: pieza instrumentalak, baladaren bat (adibidez, *Itxaropena*)... baina dezibelioak topera, noski. Bertsio batzuk jotzeko tartea ere hartu zuten Su Ta Garrekoek, heavy-metalera "bultzatu" zituen abestienak, Gorosabelek azaldu zuenez.

Askorako ematen du Su Ta Garren 30 urteko ibilbide oparoak, eta zukua atera zioten, hasieratik amaierara, lau musikariek. Abesti mitikoak jo zituzten, jendearen gozamenerako, baina kontzertua ez zen omenaldi edo nostalgia soilean gelditu. Oroitzapenetatik harago, bertaratutako publikoa aseta uzteko moduko errezitaldia izan zen eibartarrena, bi orduko emanaldian. Bazirudien nekerik ere ez zutela sentitzen Su Ta Garrekoek. Gainera, amaieran *Jo ta ke* bideoklipa jarri zuten pantailan.

Betiko indarra erakutsi zuten oholtza gainekoek, eta oholtza azpiko zaleek izerditan eta ahotsa urratuta bukatu zuten. Heavy-metalaren oihartzunak Bilbo hartu zuen gau hartan. ●

EGILEA | **ANA ZAMBRANO**

Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:

1. Enbor sendo. Solas-gaia, esamesa. **2.** Nonbait. **Argazkian**. **3.** Lortzeko lanak izanik. **4.** Etekina ateratzeko jarduera. **5.** Zorne, gai zornetsu. Kui txiki eta jangarri. **6.** Nuen, haiei. Aukeratzera behartu. **7.** Erregai. Zelatan. **8.** Antzerki. Pasaka jokatzen duen pilotari.

GOITIK BEHERA:

1. Lehor. Oso, erabat. **2.** Nafarroako mendia. Heure. **3.** Bosnian serbokroaziera ematen zaion izena. **4.** Mundu osoan zabalduta dagoen sareen sare erraldoi. **5.** Konparazioetako atzizkia. Kriptonaren sinboloa. **6.** Garai, denbora. Itxarote. **7.** Nafarroako herria, Baztan udalerrikoa. **8.** Ipurtzuloak. **9.** Tantaloaren sinboloa. Aramaioko auzoa. **10.** Ukatu aditzaren infinitiboa. Nafarroako herria. **11.** Jaurtigai txikia. **12.** Tamaina handiko hegaztiak. **13.** Gona. **14.** Berezko argia duen argizagi. **15.** Haur txiki.

Sudokua

ERRAZA

3					4		5	
	5	9		2		7	4	6
8	4	6	7				2	
		3				4		5
	1	8	5	3	7	2	6	
2		5				3		
	3				1	6	8	2
5	8	2		4		1	9	
	6		2					4

ZAILA

		7					5	9
			5	7		2		1
9			3					
	7	2		4			9	
8			1		3			6
	3			2		1	8	
					8			5
5		3		6	1			
4	8					9		

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

Kilogramoa	**KILOA**
Gertakari segida	
Laztasunez	
Ipurtzuloa	
Lelo, ergel	
Lehengusua	
Zama	
Ihinztagailu	
Deabrua uxatzeko	
Oratuta eduki	
Gabezia, eza	
Su eman	
Alfonbra	**TAPIZ**

EBAZPENAK

ATSOTITZA

HONDAMENDIAK HIL EZ ETA ONDASUNAK BAI.

ANAGRAMAK

KILOA
ZIKLO
LAZKI
UZKIA
KAIKU
KUSIA
PISUA
ISIPU
PUIES
EUTSI
PEITU
PIZTU
TAPIZ

ZAILA

4	8	6	7	3	5	9	1	2
5	9	3	2	6	1	4	7	8
7	2	1	4	9	8	6	3	5
6	3	5	9	2	7	1	8	4
8	4	9	1	5	3	7	2	6
1	7	2	8	4	6	5	9	3
9	5	4	3	1	2	8	6	7
3	6	8	5	7	9	2	4	1
2	1	7	6	8	4	3	5	9

ERRAZA

3	2	7	6	9	4	8	5	1
1	5	9	8	2	3	7	4	6
8	4	6	7	1	5	9	2	3
6	9	3	1	8	2	4	7	5
4	1	8	5	3	7	2	6	9
2	7	5	4	6	9	3	1	8
7	3	4	9	5	1	6	8	2
5	8	2	3	4	6	1	9	7
9	6	1	2	7	8	5	3	4

ESKER-ESKUIN: 1. SUBIL, AUTU, 2. INON, ARZAK, 3. KOSTARIK, 4. NEGOZIO, 5. HIRO, KALABAZIN, 6. NIEN, AUKERARAZI, 7. ERREKIN, TALAIAN, 8. TEATRO, PASAKARI. **GOITIK BEHERA:** 1. SIKU, NET, 2. UNO, HIRE, 3. BOSNIERA, 4. INTERNET, 5. AGO, KR, 6. ARO, AIO, 7. ARIZKUN, 8. UZKIAK, 9. TA, OLETA, 10. UKA, ARAS, 11. BALA, 12. ARAK, 13. ZAIA, 14. IZAR, 15. NINI.

SC Natzab

AKTIBISTA LESBOSEN

BESTE URRATS BAT AKTIBISMOAN

"SC Natzab nire aktibista izena da, ez benetakoa, ezta jaiotzean eman zidatena ere, hura izen maskulinoa baitzen, gerora aldatu nuena. Lorezaina eta erizain laguntzailea naiz. Nekazari izatea gustatuko litzaidake. 18 urtetatik ari naiz aktibismoan, hasieran ekologian, eta gero feminismo eta transexualitate gaietan. Soldaduskari intsumisioa egin eta zigorra bete nuen Langraitzeko espetxean. Greziara orain hiru urte joan nintzen, Atenasko SQUAT eraikin okupatuetara hasieran, lehen aldiz herriak krisi humanitarioan esku hartzen zuela ikusita. Azken urtea Lesbosen eman dut, No Border Kitchen taldean: janaria banatzen dugu, eta horrek jendearen arazoak ezagutu eta horiek konpondu ditzaketen zerbitzuekin harremanetan jartzeko aukera ematen digu".

"Salvini pelikulako gaiztoa da, baina Europa du atzean"

Turkiako kostaldetik gertu, indarkeriatik ihesi datozen milaka pertsonentzat Europarako atea da Greziako Lesbos uhartea. Atea, ordea, itxita dago, Europak mugak blokeatu zituenetik. Egun, errefuxiatuen krisiak eztanda egin eta lau urtera, milaka pertsona daude preso irla horretan, ez aurrera ez atzera. Han egiten du lan SC Natzab (1964, Iruñea) aktibistak, faxismo kutsua hartzen dien politikei aurre egiten, krisiaren aurrean herritarrek zeresan handia dutela konbentzitua.

ANDER PEREZ **JOSU SANTESTEBAN**

Zer da Lesbos gaur egun?
Kartzela da, handik atera nahi eta atera ezin duen jende ezagunez betetako kartzela. Han gelditu nahi dugunok atera gaitezke, eta atera nahi dutenak han geratzera behartuta daude. Moriako kanpalekua (Lesbos) kontzentrazio esparru bat da, ez du beste izenik merezi.

Zuk Grezian daramatzazun hiru urteetan, aldatu al da egoera?
Aldatu da, txarrera. Grezia, historikoki, Europarako igarobidea izan da: errefuxiatuak irletatik sartu, Pireoko portura iritsi eta han bidaiarako poltsa bat ematen zitzaien, eta bi-hiru egunetan Europara zihoazen. 2015eko krisia ere hala hasi zen, Europak mugak ixtea erabaki zuen arte. Moriako kanpalekua 3.000 pertsonentzako harrera kanpaleku gisara egokitu zuten, baina 10.000 izatera iritsi ginen. Jendeak lurrean egin behar izan du lo, ur fekalen artean, 70-80 pertsonentzako dutxa bakarrarekin. Barne zaintzarik gabeko kontzentrazio esparrua da, eta indarkeria piztu da, hainbeste jende pilatzeak gainbehera ekarri dituelako arau sozialak. Gauzak txarrera doaz: lehen hilabeteetako tramiteak zirenak egiteko urteak ematen dituzte orain. Eta gobernu berriak, gainera, harrerarako zentro guztiak itxiak izatea nahi du, alegia, prozesu osoa –eta urteez ari gara– espetxe batean eman dezatela. Indarkeriatik ihesi datorren jendea espetxeratzen ari dira, epaiketarik gabe, eta giza eskubideei jaramonik egin gabe.

Zenbat jende dago egoera horretan?
Lesbosen 11.000 inguru dira, eta horietatik ia 9.000 daude Moriako kanpalekuan. Hazkunde nagusia azken hilabetean eman da: Turkiak gas -prospekzio batzuk egin ditu Zipreko lurralde okupatuan, Greziak Europar Batzordearen aurrean salatu du hori, eta hark Turkia zigortu du. Turkiak txanpon truke gisara erabili du hori: "Ikusiko duzue, errefuxiatuak pasatzen utziko ditut". Ondorioz, orain arte Lesbosen astero 200-300 errefuxiatu inguru sartzen baziren, orain

"BAKOITZAK INDARKERIA MOTA BAT DAKAR, BAINA DENAK DATOZ IHESI BIZI NAHIKO LUKETEN HERRIALDE BATETIK. ETA HALA IRISTEN DIRA GREZIARA".

egunero ari dira kopuru horiek sartzen. Ez badira hasten jendea kontinentera eramaten, 18.000 edo 20.000 pertsonekin iritsi gaitezke negura, eta hemengo baldintza ankerrak ikusita, matxinada bat egon daiteke. Honek eztanda egin dezake, baina Europari berdin zaio.

Zein da jende horren historioa?

Historio asko dira. Hasieran Siriako gerratik ihesi zetozenak ziren, guk eta gure euskal arma enpresek sortutako gerratik ihesi. Yemengo gerratik datozenak ere badira, eta baita Turkiako aurkari politikoak ere, Birmaniakoak, Bangladeshkoak, Afrika beltzekoak. Gutxiengo bateko kide izateagatik jazarritakoak ere badira, gutxiengo erlijioso –yazidiak, adibidez– zein kolektibo gutxituetakoak, LGTBI kolektibokoak, adibidez. Badira indarkeria heteropatriarkaletik ihesi datozen emakumeak ere. Bakoitzak indarkeria mota bat dakar, baina denak datoz ihesi bizi nahiko luketen herrialde batetik. Hala iristen dira Greziara.

Espero dute halako harrerarik?

Guk hondartzan ematen diegun ongi etorria da espero dutena, baina ez dute espero Europak baztertzea. Europa askatasunen itsasargia dela, eta behin hona iritsita indarkeria atzean utzi dutela pentsatzen dute. Eta bat-batean, preso ikusten dute beren burua. Ez dute haiekiko kriminalizazioa ulertzen. Errefuxiatuak ez zaizkigu iragana, oraina eta etorkizuna duten pertsona gisara aurkezten; terrorista islamiarrak dira, lana kentzera, emakumeak bortxatzera eta beloa inposatzera datozenak. Segurtasun gisara saldu digute mugen kontrola, baina ideia faxistak ikusten ditut nik. Eta, hain zuzen ere, eskuina botoak irabazten ari da Europa osoan, ahotsa altxatuta.

Ez da Salvini bakarrik.

Salvini aho-handi bat da. Lau oihu bota, giza eskubide guztiak urratzen dituen araudia ezarri eta barrabilak jartzen ditu mahai gainean. Baina Europak nahi duena egiten ari da Salvini, bestela geldiaraziko lukete. Europan badira neurri administratibo nahikoak giza eskubideak urratzen dituen dekretu bat atzera botatzeko. Salvini pelikulako gaiztoa da, baina Europa du atzean.

Zer babesten dute mugek?

Lau enpresa eta enpresari, gerran zein bakean aberasten direnak. Berdin zaie armak ekoiztea edo kartzelak eta kontzertinak eraikitzea. Goian ez gauden guztiak aparte uzten gaituen sistema kapitalista da babesten ari direna. Europako estatutuetan badira lerro sozial interesgarriak, baina berez, merkatu komun gisa jaio zen, eta arrasto hori indarrean da. Merkantzien zirkulazioa askea da, baina pertsonena ez.

Bizi duzuen egoeran, nola eusten zaio indarrari?

Frustrazio handia dago, irribarre bakoitzaren atzean sufrimendua dagoelako, ezin direlako atera. Baina gauza eder asko ere badira. Hondartzan jasotzen ditugunean, gau osoa uretan itzal baten bila pasa ostean, eta kantatzen hasten direnean... Neke handiz baina maitasun handiarekin lan egiten dugu. Krisi batetik datozen pertsonak dira, eta trauma bat dakarte; ezin diegu gure trauma erantsi. Eta beraz, gure irribarrerik handiena ateratzen dugu, sinesten dugulako honetan; gero, etxean, negar egiten dugu. Nik ez dut sekula hainbeste negar egin. ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

Euskal Herriko zorriak aste honetan itzuli dira lanera, ikasturte berrirako mobilizazioak iragarriz

Udako opor luzeen ondoren, Euskal Herriko zorriak aste honetan itzuli dira ikasgeletara. Iaz baino 18.289 zorri gehiago ibiliko dira aurten euskal umeen buruetan eta kurtso hasiera baliatu dute euren egoera salatzeko: "Ikas-komunitatearentzat funtsezkoak garen arren, erakunde publikoek marjinatu egiten gaituzte", adierazi du Zorri Langileen Sindikatuak prentsara bidalitako ohar batean. "Etxe guztietara iristen gara, ez dago gure zerbitzuak jasotzen ez dituen ikastetxerik, baina hala ere existituko ez bagina bezala jokatzen dute. Noiz arte?". Ikasturte berrirako aldarrikapenen artean, nagusia honakoa da: Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskal Elkargoak irakaskuntzako oposizioetan zorrientzako plazak sortzea. "Bestela, eragiten dugun azkura hirukoiztuko dugu", adierazi du sindikatuak. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Kalijapontxo

Gure Jaka Horiak

GAIZKA PEÑAFIEL

Kaiser Sose bere ezkutalekutik atera da Iñigo Muguruzari azken agurra emateko

Urtetan zurrumurru bat izan da, konspirazio-teoria ugari zegoen haren inguruan, CIAk zioen ez zela existitzen, baina Kaiser Sose Irunen agertu zen joan den astean, Iñigo Muguruzari azken agurra emateko. "Jendeak pentsatzen du politikariak direla boterea manejatzen dutenak. Hariak finak eta ez dira ikusten, baina ordenagailu aurrean nik ditut mugitzen", konfirmatu dio Beranduegiri, herrenarena eginez eszenatik desagertu aurretik. Despedidako jaian Pedro Mayok beti lanean jarraitzen duela konfirmatu ahal izan dugu, ahotik botatzen duen keak Antoine nahasita daukala eta ezin dela ska dantzatu negar egin bitartean. Moskuko plazara iristear da Positive Bomb kargamentu berri bat, egoerari buelta emateko. ●

ARGIA

Mintza Casai

EUSKARA IPAR EUSKAL HERRIAN

Euskal Hirigune Elkargoa sortu ondoren

Mahaikideak

JEAN CLAUDE IRIART
MARIE ANDRÉE OURET
ENEKO BIDEGAIN

Moderatzailea
MIKEL ASURMENDI

EUSKAL ERAKUSTOKIA
Baiona Tipian

IRAILAK 27, 19:00
Ostirala

BABESLEAK:

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Bizkaia
foru aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua

ORAIN KULTURA

eke icb
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

URRIAK 12
DONOSTIAN

DESKOLONIZA GAITEZEN!

ARGIAREN MENDEURREN FESTA

URRIAK 11 OSTIRALA

21:00 ***NAPARDEATH***
FILM TRILOGIA IKUSGAI
TRINITATE PLAZA

URRIAK 12 LARUNBATA

11:00 **ZOMORRO BILA URGULLEN**
Iñaki Sanz biologoa eta Eñaut Aiartzaguena marrazkilariak gidatuta.
TRINITATE PLAZATIK HASITA

12:00 **IBILBIDE HISTORIKOA KALEZ KALE**
Txistulariek gidatuta, Urko Apaolaza historialariaren azalpenekin eta Beñat Gaztelumendi eta Miren Artetxe bertsolariek zirikatuta.
TRINITATE PLAZATIK HASITA

13:00 **SOKA-DANTZA**
KONSTITUZIO PLAZA

14:00 **BAZKARI HERRIKOIA**
Saizar sagardo barrika, mahaiak eta aulkiak.
Janaria bakoitzak berea eraman.
TRINITATE PLAZA

16:00 ***POBRESIAK*** **EMANALDIA**
TRINITATE PLAZA

17:00 **PAILAZOAK**
Txirri-Mirri-Txiribiton Junior-en emanaldia.
SAN TELMO PLAZA

18:00 **NAN ARROTZEN JAURTIKETA TXAPELKETA**
TRINITATE PLAZA

19:00 **KALEJIRA DANTZARIA**
TRINITATE PLAZATIK ABIATUTA

20:30 **KONTZERTUAK**
TRINITATE PLAZA
AMAREN ALABAK
MURSEGO
BALERDI BALERDI
NIÑA COYOTE ETA CHICO TORNADO

BABESLEAK:

Nafarroako Gobernua · Gobierno de Navarra · Euskal Jaurlaritza · Gobierno Vasco · Bizkaia · Gipuzkoako Foru Aldundia · Gaztelu Kultura · eke icb · Donostia San Sebastián · Laboral Kutxa

LAGUNTZAILEA:

SAIZAR

ARGIA